


ASTEKO GAIA: UDAKO SOLSTIZIOA

Arrasate

P R E S S

2000.eko
ekabarraren 23a
601. zenb.

AREN IKUSPUNTUTIK: H. RODRIGUEZ • ORAIN ETA HEMEN: GIZA BAZTERKETAREN AURKA
KIROLAK: RETEGI II. UARKAPEN • KULTURA GAIA: SJB-REN LIBURUA




**Arrasateko Udalbatzak
San Juan jai zoriontsuak
opa dizkizue
arrasatear guztioi**



ARRASATEKO UDALA

bimilagarren urtean
 bimila garren artean
 bimila lanean ostean
 biribilean
 biribilean
 zubi bila
 lanean
 betebetean
 san juan heldu jaku
 beste batean
 besta batean
 2000 zorion



A U R K I B I D E A

• Alkatearen agurra 3	• Salbea 34	• Azoka plaza 56
• Euren ikuspuntutik 5	• Makalaren igoera 37	• Foto zaharra 58
Izar berria	• Errementari dantza 38	
• Inkesta 7	• Haur eta gazteen eguna 39	
• Asteko hitzorduak 8/9	• Arrasateko banda 40	
• Astearen errepasoa 10	• Bertsolariak 41	
• Orain eta hemen 13/14	• Kontzertuak 42/43	
• Txutxumutxuak 17/19	• Dragoi jana 44	
• Asteko gaia 20/21	• Herri bazkaria 47	
Udako solstizioa	• Fanfareak 48	
• Zaldibar 22	• Tirri Tarra 51	
• Kirolak jokoan 23/24	• San Joanetako kirolak 52/53	
• Kulturaren txokoa 27/28	• Ikusi eta entzun 54/55	
• San Joanetako hitzorduak 29		



ARKO
 ARRASATE
 KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

Argitaratzaileak: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Olatora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)

Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89

E-mail: arrasatepress@euskalnet.net

Arrasate Irratia: 943 71 17 31t

Laguntzaileak: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Marijo Deogracias. **Kazetariak:** Ubane Madera, Maider Osa, Leire Kortabarria eta Gorka Etxabe. **Publizitateak:** Nerea Zallo, Arantza Lagunilla, Arantza Arroisabe. (Tel.: 943 71 23 91/ 943 71 23 92). **Zuzentzaileak:** Sergio Azkarate. **Administrazioa:** Agurtzane Gainzarain, Ane Bereizbar (Tel.: 943 71 23 90). **Diseinua:** Maddi Trubuelo. **Astoburuetako berriemakela:** Lorea Agiriano. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Karmele Perez, Nekane San Migel, Iker Ezpeleta eta Udaleko Gazteria Saila.

Banaketa arduraduna: Naitara Oñozola-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.600. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. **Franko kontzertatua.** **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta intzieren erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Maddi Trubuelo.



Loramendi kirolak

*Udan ere
zugandik gertu*



NEREA

Erdiko kale, 28
ARRASATE
Tel.: 943 79 13 43

**Bainu jantzitan
espezialistak!**



Izar berri bat

*Harkaitz Rodriguez

Ez dira nolana hikoak Euskal Herriko gazteok XXI. mendearen atarian ditugun arazo eta erronkak. Munduan zeharko herriok kapitalismo historikoaren mundu mailako erasoaldi berri bezain bortitza jasaten ari garen honetan, aipatu sistemak gazteengan sortarazitako ondorioak ugaltzen eta dibertsifikatzen ari dira. Era berean, biderkatzen ari dira, gazteok, inguratzaren gaituen errealitatearen zergatietaz jabetu ez eta gure etsipena amorru bilakatzeak indarberriturik, beharrezko bezain lorgarria den alternatibaren bidean dinamika eta prozesu integral eta eraldatzaileak abian jar ez ditzagun sistemak sortutako errepresio eta asimilazio tresnak. Inoiz baino larriagoak dira gazteon bizibaldintzak; geroz eta esplotazio maila handiagoenpean lan egitera edo langabeziara kondenatu nahi gaituzte; gure bizi eredu propioak independentzian garatzeko ahaleginik txikiena ere zapuztu eta drogamenpeko-

tasunean murgildu nahi gaituzte; gazteok, aisialdi askatzaile eta eraldatzaileak garatu ez eta kontsumismora eta sistemaren baloreen irenstera zuzenduriko aisialdi eredu homogeneizatzaile eta indibidualistaren erreproduktzioa bultzatu nahi gaituzte; gure herriaren nortasun eta izatearen adierazgarriak txikiak ere zapaldu eta gazteok hiritar espainol eta frantses bihurtzea helburu duen hezkuntza sistema arrotz eta alienatzailearen inposaketa onartzera behartu nahi gaituzte; gauza guztien egoera bere horretan uztea helburu duen ideologia kapitalista eli-

“
Ongi baino hobeto dakigu
gazteok Euskal Herriaren
eta gure etorkizunaren
giltza eskuetan dugula
”

katu eta zabaltzeko ezinbesteko tresna diren komunikabideen bidez, gure herriaren izatea ukatu eta benetako errealitatea ezkutatu nahi digute; izaki inkomunikatu, konformista eta sumiso bihurtu nahi gaituzte; alienaturik, burumakur, etsiturik nahi gaituzte...

Baina, beste behin ere, HAIKA sortzearekin batera, Euskal Herriko gazteok tamainako erronkei tamainako erantzuna emateko gai garela erakutsi dugu, bai eta etorkizunean erakutsiko ere! Izan ere, ongi baino hobeto dakigu gazteok Euskal Herriaren eta gure etorkizunaren giltza eskuetan dugula; egungo sistematik at alternatibarik ez dagoela sinistarazi nahi digutenei entzungor egin eta sistemaren logika eta eragite zapaltzailetik kanpo dauden espazio liberatuak erakitzeke gaitasuna dugula; gure proiektu komunikatiboak eta bizi eredu propioak askatzaileak praktikan gauzatzeko gai garela; Euskal Herri luze zabalean zehar, koto gazte indarrak bildu, eta antolakuntza eta borrokari esker Euskal Herriaren, bai eta Gazte Herriaren eraikuntza azken muturreraino eramateko gai garela!

*Haikako kidea

USTEAK USTE

San Juan ala San Joan?

Horixe izan da, iaz bezala, aurten ere **Arrasate Pressen** izan dugun eztabaida. Dirudienez, San Joan esan behar omen dugu euskaldun orok; berdin da, iparraldekoa edo hegoaldekoa izan, gipuzkeraz mintzatu edo bizkaieraz berba egin. Kontua da **Arrasateko Udalak** atera duen egitarauan San Juan erabili dutela eta **Euskaltzaindiak** dagoeneko San Joan idatzi behar dela esaten duela. Horren kontura, San Petri jaiak lirateke Eskoriatzako jaiak. **Dudak** genituela eta, **Iñaki Mendiguren**ekin izan ginen, eta bera San Joanetik San Juanera aldaketa txikia dagoela eta San Joan idaztearen alde agertu zen. **Arantzazu Loidiri** ere galdetu genion eta berak San Juanak bai, baina San Joan jaiak idazteko gomendatu zigun. **Beno**, azkenean, **Arrasate Presseko** erredakzioan San Joan jaiak eta Sanjoanak idaztea erabaki genuen, baina Eskoriatzako jaiak, San Pedroak izango dira eta ez San Petriak. **Arrazoiak**, Euskaltzaindian.

Marijo Deogracias

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82

M

MEMESA

Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
 Igoalatorioa 943 71 26 91
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak) 943 79 39 00
 (emakumeak) 943 79 44 11
 Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11

Larrialdiak
 SOS Deiak 112
 Gurutze Gornia 943 76 65 76
 DYA 943 78 71 57

Anbulatorioak
 Guardiako medikua 943 46 11 11
 Arrasate
 • Txanda hartzeko: medikuntza
 orokorra eta pediatria 943 03 52 50
 • Espezialitateak 943 03 53 11
 • Ikuskatzailea 943 03 52 52
 • Kanpoko kontsultak 943 03 53 11
 Aretxabaleta 943 79 74 58
 Aramaio 945 44 53 40

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulanziaz 943 45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati 943 78 04 11
 Bergara 943 77 91 06
 Arrasate 943 79 14 39
 Aretxabaleta 943 79 10 52
 Eskoriatza 943 71 44 07

Ertzaintza
 Arrasate 943 79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea 943 79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea 088

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua) 943 79 09 00
 Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
 Gasa 900 40 05 23
 943 79 78 44
 943 79 76 78

Garraioak
 Taxiak 943 79 12 22
 PESA 902 10 12 10

Hirugarren adinekoentzako zentruak
 Iturbide Egoitza 943 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

Monterron liburategia
 Monterron 943 77 01 05

Irratia
 Arrasate Irratia 943 79 58 77

GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

- Ostirala, 23
 - Korkuera, Musakola
- Larunbata, 24
 - Irizar, Erguin
- Igandea, 25
 - Amezua, Santa Marina
- Astelehena, 26
 - Zabala, Zarugalde
- Astearte, 27
 - Ruiz, Maalako Errabala
- Asteazkena, 28
 - Morales, San Andres
- Osteguna, 29
 - Azkoaga, Ferrerías

ZORIONAK PEDROTXO!

Kaixo Pedrotxo, lerrotxo hauen bitartez nahi dizugu besarkada bero bat eman, berrogeitahiru aldiz belarritik tira, soilik eskutitez bada ere. Ea datorren urtean, zure eguna denok elkarrekin ospatzeko aukera daukagun, barrote mingarri eta hotz bartzuek gu banatu beharrean, zure lagunek etxean nahi eta behar zaitugulako.

Besterik gabe Pedro, zorionak berriz ere, laster arte eta hartu agurrik beroena musu handi bateaz zure lagun hauen partez.

Aurrera Bolie!

Irati eta Alaitz

MUGA GABEKO GOSE GREBA ARRASATEN

Zerk bultzatzen die Arrasateko bi gazte hauei gose greba mugagabea egitera? Norberaren gorputzaren aurkako halako zigorra ez da hamabost minutuko kontzentrazioa. Zerk bultza dezake pertsona bat bere egoera materialarekin zerikusirik ez duen kausa batengatik bere gorputza arriskuan ezartzera?

Nola Euskal Herriaren hitza errespetatu, hain sinple den presoen eskubide minimoak ez baditugu betetzen? Erreibindikazio honetan gizar-te osoa dago alde. Gure erakunde instituzional ia guztiek aldarrikatu dute ere disperstioaren aurka eta presoen eskubideen alde. Gainera, ez da eskatzen ezer berria, dagoen legeria aplikatzea soilik. Galdera da... zer gertatu beharko luke edo zer egingo beharko genuke hain eskubide minimoak errespetatuak izan daitezen?

Eskubide demokratikoak errespetaturik ez dauden gizar-te honetan, borroken ondorioei buruz dagoen eztabaida faltsua gaintuz, zergatiei buruzko terapiari bideratzen diote bi gazte hauek kezka eta eztabaida. Terapia honetan, hain erraza izan daiteke soluzio bidea. Gazte hauek, benetan emankorrek direnez, argitzen digute erantzuna: bakoitzaren kontzientzian dago erantzutea.

Antxon Mendizabal
 Sagra Lopez

PRESOEKIKO ELKARTASUNA

Arrasaten bizi diren atzerriar talde bat gara eta "Euskal Presoak-Euskal Herrira" herriko aldarrikapenarekin bat egin nahi dugu. Bide batez, kondanaren 3/4ak bete dituzten ia 100 presoen askatasuna eskatzen dugu, batez ere Pedro Guridi, Jon Agirre, Jesus Mari Zabarte eta Goio Etxabe arrasatear presoen askatasuna. Horrez gain, udaletxean gose greban dauden bi arrasatearrekin ere bat egiten dugu.

Idalma Soto (Kuba)

Dirk Morenweiser
 (Alemania)

Helen P. Cooper
 (Ingalaterra)

Geoff Bate (EEBB)

A Gavins (Ingalaterra)

Chieko Hata (Japonia)


Iain MacGregor
 (Eskozia)

Elenora Dulfora
 (Bulgaria)

Fiona Cloherty
 (Irlanda)

Maurizio Della Chiesa
 (Italia)

Francisco Donatona
 (Italia)



Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
 (Legarre Pabiloia)
 Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak

Ibilgailuak

Stand-ak

Itsasgarriak

Biniloa

Señalizazioak

Lonak

Erliebendun hizkiak



ILE APAINDEGIA

Alfonso X Jakintsua, 1 behea
 (Grupo San Juan)
 Tel.: 943 79 79 65

Gehiago ligatzen da jaietan?

Herriko jaiak aukera polita omen dira lotsa galdu eta bikotekidea aurkitzeko



Aniot Rodriguez
(22 urte)
Langilea

Horrela izan behar dela ematen du, baina ez dut uste horrela denik.



Ane Lur Garin
(14 urte)
Ikaslea

Jendeak aprobetxatu egiten du; asko edaten da eta lotsa galtzen da horrelakoetan.



Maria Mancebo
(43 urte)
Etxekoandrea

Ez dakit. Agian jaiak horretarako aukera ematen dute.



Maite Aginaga
(36 urte)
Langilea

Urte guztian dago aukera ligatzeko. Nahi duenak eta bilatzen duenak topatzen du, baina jaietan gehiago bilatzen da.



Cipriano Irigoien
(78 urte)
Erretiratua

Guk egunero ligatzen dugu! Nik neuk emaztearekin jaietan ligatu nuen.




David Arranz
(82 urte)
Erretiratua

Gaur egun gehiago, lehen ez zen horren erraza. Garaiak aldatu egin dira, askatasun gehiago dute gazteek.



Mariasun Eunda
(42 urte)
Langilea

Bai, beti gehiago. Jendea gusturago ibiltzen da.



Jon Lopez
(33 urte)
Langilea

Baietz uste dut, jendea ari-nago ibiltzen da eta.

Focus TDdi

Injekzio zuzena
1.975.000 pta.

Prever plana
eta deskontuak barne

MUGARRI

943 79 07 44



EZARKI

OINETAKO KONPONKETAK

Maalako Errebala, 8 • ARRASATE

MERKEKILO

Oihalak
Kortinak

Ferrerias, 5
Tel.: 943 79 15 00

Zorionak Arrasate!

23
ostirala

■ **ZINEMA**

Las vírgenes suicidas
19:00-22:00, Alai zineman.

24
larunbata

■ **ZINEMA**

Las vírgenes suicidas,
17:00-19:30-22:00, Alai zine-
man.

25
igandea

■ **ZINEMA**

Lista de espera, 17:00-
19:30-22:00, Alai zineman.

■ **JAM ARETOA**

Demons Wizards eta *Dark Moor* taldeen kontzertua izan-
go da Jam aretoan. 21:00.

27
asteartea

■ **ZINEMA**

Lista de espera, 17:00-
19:30-22:00, Alai zineman.

Sanpedroak Eskoriatzan

EKAINAK 24, ZAPATUA

15:00 IV. Autocross Txapelketa, Ederlan
paretik aterako da.

EKAINAK 27, MARTITZENA

17:00 Herriko edadetuentsat
jaialdia Jubilatu Etxean.

EKAINAK 28, EGUAZTENA

19:00 Txupinazoa eta kalejira.
19:30 Salbea, San Pedro elizan.
22:30 Nagusien danborrada.
00:30 Suzko Errubarak.
00:45 *Joselu Anaiekin* dantzaldia, plazan.

EKAINAK 29, EGUENA

09:00 Herriko txistulariekin kalejira.
11:30 Txistulariekin, Udal Korporazioa San
Pedro parrokiara joango da.
11:40 Elizbira.
12:00 San Pedro elizan Meza Nagusia.
13:15 Musika Eskolako Bandaren kontzertua
herriko plazan.
18:00 Tirri Tarra Show, Gorosarri plazan.
20:00 Dantzaldia, herriko plazan,
Papillon taldearekin.
00:00 Zezen suzkoa, plazan.

Zubizaneta



GALERIA 44

Denda berezia
Ondo pasatu San Joanak

Zerkaosteta, 8 Tel.: 943 - 79 90 50 • ARRASATE

Umeen moda



Garibai, 6
ARRASATE
943 79 97 86

28 asteazkena

■ PIANO KONTZERTUA

Rosa Torres Pardo pianojoleak kontzertua eskainiko du. Oñatiko Santa Ana antzokian, 19:30,

San Pedroak Zubillagan

EKAINAK 29

19:00 Txupinazoa eta txikiteoa.
19:15 Meza. Oñatiko Abesbatzarekin.

EKAINAK 30

19:30 Herri-txikiteoa, trikitixa.
22:00 Pilota partidak: Ansola-Esnaola eta Irazola-Azkarate.

■ **MERKATARIEN ASTEA**
24tik uztailaren 1era, Gipuzkoako Merkatarien Astea izango da. Hori dela eta, hilaren 30ean Arrasate Musikaleko Bandak emanaldia eskainiko du herriko kaleetan zehar. Gainera, erosketekin batera txartelak banatuko dira Gipuzkoako herri guztietan, milioi bat pezetaren zozketarako.

■ **GURASOEN TOPAKETAK**
Mugj psikomotrizitate zentroak gurasoen topaketak antolatu ditu. Bi talde izango dira, 0-2 urteko umeen gurasoentzat. Bestalde, 9 hilabete-tik 5 urtera arteko umeen gurasoentzat psikomotrizitate saioak izango dira. Aurreinskripzioa uztailaren

10a baino lehen. Tel.: 943 77 08 05.

■ **YOGA IKASTAROA**
Yadhana yoga eta psikoterapia zentroak ikastaro baterako izenemate epea zabaldu du. Yoga hastapen ikastaroa izango da, uztailaren 15etik 22ra, Aretxabaletan; izenematea, 943 79 88 53 telefonoan.

■ **KIROLDEGIA ITXITA**
Ekainaren 24an iturripeko kiroldegia eta igerilekua itxita egongo dira, San Joan eguna dela eta.



Arbolapetan!
Olarate, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 27



Marivi

LORADENDA

Alfonso X jakintsua 5
(Grupo San Juanen) • ARRASATE
Tel.: 943 79 15 59 / 943 78 81 54

Koroak, ezkontzarako edo momentu berezietarako lore sortak.

KURRUXKO


Okindegia
Urdaitegia
Gozotegia
Bakailaoa

Bañez doktorea, 12
Tel.: 943 79 22 57

LAN ESKAINTZA

Zahar berri egitasmorako eragilea behar da

- Egun erdirako lan kontratua eskaintzen da.
- Hautaketa prozesuan parte hartu gura izanez gero, bidali kurrikuluma AEDra (Pablo Uranga, 4 Arrasate) ekainaren 30a baino lehen.
- Informazio gehiagorako deitu 943 71 21 17 telefonora edo etorri Pablo Uranga 6an ditugun lokaletara.



ARRASATEKO KOMIKI EZ SEXISTEN III. LEHIAKETA

Lanak aurkezteko epea 2000ko uztailaren 21a

SARIAK

- Lehen saria: 90.000 PTA
- Aukera berdintasuna lantzen duena: 60.000 PTA
- Emakume egilearentzat: 60.000 PTA
- Gazte saria: 30.000 PTA
- Euskara Saria: 30.000 PTA (metakorra)



Artiz Fernandez (Arrasate)



ARRASATEKO UDALA Emakume Saila ■ Tel.: 943 79 41 39

astea bi hitzetan

■ MU-Caxias do Sul

Mondragon Unibertsitateak eta Brasilgo Caxias do Sul unibertsitateak elkarlanerako hitzarmena sinatu dute. Kultura eta ikerketa tekniko-zientifikoan egingo dute lan elkarrekin. Debagoieneko campuseko hiru fakultateetan lantzen diren hezkuntza ereduak Brasilgo unibertsitatean jarriko dira abian.

Teknologia berrietara, lan eskunduntzetara eta hizkuntza espainolaren irakaskuntzara ere zabalduko da elkarlana. MUko irakasleek irakatsiko dituzte horiek, sistema birtual baten bidez.

■ Lapurretak

Martitzen goizaldean bi lapurreta egin ziren gure inguruetan. Arrasaten, Ertzaintzak bi gizon atxilotu zituen Izagirre harategian lapurtzera zihoazenean, San Andresko Kurtze Txiki plazan. Estoldaren estalki bat atera eta harategiko kristalak apurtzen saiatu ziren bi gizonak. Arrasatearrak dira biak, 33 eta 37 urtekoak, eta espetxe aurrekariak dituzte.

Aretxabaleako Gazte-txean goiko barra lodiak kanporantz bihurritu eta hortik sartu ziren lapurrak. Tabernako 45.000 pezeta eraman

zituzten lapurrek.

■ 5.000 milioiko inbertsioa

Fagor Elekratresnak kooperatibak 5.000 milioi pezeta inbertituko ditu Polonia-ko Wrozamet plantan. Hiru helburu ditu inbertsioak: tresneria hobetzea, produkzioa gehitzea eta azpiegitura egokitzea etxeko tresna elektriko gehiago egiteko. Sukaldeak baino ez dira egiten Wrozameteke plantan, eta datozen lau urteotan hozkailuak, garbigailuak eta etxeko tresna elektriko txikiak egin nahi ditu Fagorrek.



■ Enrike Letona Arrasaten

Joan den ostiralean Enrike Letona preso mondragoetarra Arrasateko parrokiara ekarri zuten Murziako espetxetik. Bere aitaren, Tomasen, hileta elizkizunera ekarri zuten San Joan Bataiatzailearen parrokiara. Oraindik ebakuntza egin berri makuluen laguntza behar izan zuen.

Enrike Letonak hamahiru urte daramatza espetxean.

“ Atletismoko taldekoek Iturripen instalazio obsoletoak dituzte eta errugbi jokalariek patata sail batean jokatzen dute. Merito handia dute lortzen dituzten emaitzak lortzen, entrenatzen duten tokiak ikusita. (...) Kiroldegi berriko proiektua begi onez ikusten duten Diputazioko ordezkariekin elkarriketak izan ditugu, baina oraindik politikoen erabakiaren zain gaude. Dударik ez dago, Arrasateko udalak berak bakarrik ezin duela gastu hori guztia bere gain hartu”.

AUKEA

Gara
(2000.6.21)



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76



- Garajeko atek
- Burdinazko pertsianak
- Automatismoak
- Urrutiko aginte tresnak eta hauen mota guztietako kopiak
- Oinezkoen ateentzako sistema automatikoak
- Konponketak

JUBAR[®]
ATEAK, S.L.

Kataide industrialdea 18 • Tel.: 943 79 10 20 • Faxa: 943 79 08 17
110 Posta-kutxa • ARRASATE

J A N T Z I D E N D A

LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55



E T X E A P A I N K E T A



Bigarren bulegoa ireki dugu **ARRASATEN**

Orain gertuago gaude...
Bidaia onenekin.

Otalora kalea 23an ere
izango gaituzue.



Kontzeziño, 2
Tel.: 943 79 14 06

Otalora, 23
Tel.: 943 79 05 00



Udalaitz, S.L.

Musakola auzoa, z/g • ARRASATE
Tel.: 943 79 18 80 / 943 79 21 25

San Juan jaietan
ondo pasa!



Serafini laguntzeko



Ostegunean aurkeztu zuten S.Lorenzoren lagunek berari laguntzeko taldea.

Serafin Lorenzoren lagunek bere familiari laguntza emateko taldea eratu dute. Serafinnek iaz enbolia bat izan zuen. Ordutik gurpil aulki batean dabil. Horretaz gain, tratamendu oso garestia behar du eta horretarako dirua batzeko laguntza bonoak atera dituzte 1.000 eta 5.000 pezetan. Herriko tabernetan eta SUDCen daude salgai eta enpresetara ere joko dutela adierazi zuten prentsaurrean.

Zigorrola inguruan hasi zen Serafin Lorenzoren aldeko laguntza taldea eratzen.

Mondragoetar horrek Musakolan ordu asko igaroten zituen, Erro pilota taldearekin, bereziki. Duela pare bat hilabete inguruko lagun batzuketan hasi ziren. Bere lagunek adierazi zuten, Serafinen egoera ez da batere ona, baina medikuek sendatuko den esperantza badutela gaineratu zuten.

Laguntza emateko honako kontu korronteetara jo:

Kutxa: 2101.0097.48. 0123013104.

Euskadiko Kutxa: 3035. 0055.13.0551035223.

Lan istripua Ederlanen

Joan den egunean Fagor Ederlanen izan zen lan istripuak protesta ekintzak eragin ditu sindikatu eta langileen artean. Joan den egubakoitzean, dolua egin zuten Arrasate eta Eskoriatzako Fagor Ederlaneko langileek. Eta astelehen horretan, ELA, LAB, ESK eta STEE-EILAS sindikatuek deitutako kale bilkura egin zen Fagor Ederlanen aurrean.

Euskal Administrazioari prebentzio planak betearaztea eskatu zioten, euren esanetan, segurtasun neurriak ez baitira betetzen.

EHUNDIK GORA

Ehundik gora langilek erantzun zioten sindikatu horien deialdiari.

Astelehenean, goizeko 11:30ean, hasi zen protesta ekintza enpresaren aurrealdean, eta ordu laurden inguru iraun zuen. Bertan izan ziren sindikatuetako ordezkariak eta Ederlaneko langileak. Bilkura amaitezko, errepidea moztu zuten bost minutuz.

Egunean lan istripuz hildako langilea Feliciano Martinez zen, 53 urteko atxabal-tarra.

“Denontzat” etxebizitza eske



Asteartean egin zuten bat gose greban dauden solidarioekin.

Arrasaten etxebizitzak oso garestiak direla eta etxebizitza politika berriak egitea eskatu dio Udalarri Arrasateko Giza Bazterkeriaren Kontrako Taldeak. Horrela adierazi zuten martitzenean eman zuten prentsaurreko batean, “Denontzat” taldeak.

Taldeko ordezkarien esanetan, Arrasaten 657 etxebizitza daude hutsik, eta horiei irtenbidea emateko proposamenak aurkeztu zituzten: besteak bes-

te, arau foralak bultzatu eta hutsik dauden etxeak alokairuan jartzea eskatu zioten Udalarri.

Gainera, 50.000tik gora bizilagunek duten hirieta-ko Lurzoru Legea ezartzeko eskatu dute Arrasaten. Bide batez, Udalak aurrekontuaren %5 lur publikoa erosteko erabil dezala nahi dute.

Bestalde, aurrerantzean Giza Bazterkeriaren Aurkako Taldeak Denontzat izena izango du.

“Batasuna” taldearen aurkezpena

Arrasateko ezker abertzalearen inguruko jende asko hurbildu zen ostegunean Monterronera. Bertan, aurkeztu zuten “Batasuna” prozesua: abertzale eta ezkerreko sentitzen diren guztiak batzeko erakunde berria eraiki nahi dute.

Hamabi laguneko talde eragilea sortu da Arrasaten. Jon Andueza, Natalia Landa, Leire Bergara, Mikel Irizar eta Antxon Mendizabalek osatuko dute, besteak beste Batasuna proiektua bultzatuko duen taldea Arrasaten. Izan

ere, prozesuak herri eta auzo batzordeak eratu nahi ditu prozesua ahalik eta zabalena izateko.

“Batasuna” proiektuak urtebeteko iraupena izango du eraikitze eta ondoren sortuko den egitura politikoa hego Euskal Herrian kokatuko da.

Proiektua orain dela hilabete aurkeztu zen ofizialki Iruñean.

Hantxe ere hiru mondragoetar izan ziren: Jon Andueza, Antxon Mendizabal eta Xabier Zubizarreta.

275 lanpostu finko Fagorren

Fagor Taldeak 275 lanpostu finko egingo ditu irailerako. Horietatik ia 25 sozietate izaeraren utzipenak, hau da, gurasoek semei utzitako lanpostuak, izango dira, eta besteak, aldiz, bazkide berriak.

Langile berrien hautaketa urrian amaituko da, eta hautatuen zerrenda irailean kaleratuko da; ordura arte, hainbat proba egin beharko dituzte. Zerrenda kaleratzean, erreklamazio eta iradokizun epea zabalduko da.

Bazkide berri gehienak Fagor Elektratresnak lantegira joango dira, baina baita Elektronika, Copreci, Fagor industrial eta Fagor Automationera ere.

Urte amaierarako bakoitza bere lanpostuan izango da.

Musakolako parkea

Musakolako auzoan, umeentzako parke bat jartzekotan da udala. Haurrentzako parkea Nao Santiago kalean egitea aurreikusi da. Dena dela, parkea egitea aztertu duen enpresak lanak zatika egitea gomendatu du; hau da, lurra asfaltatu, segurtasun lurra eta parkea ixtea.

Bi enpresek aurkeztu dituzte aurrekontuak: Yor SA eta Lurkoi SL. Udaleko zerbitzu eta mantenimenduko batzordeak bi eskaintzen artean Lurkoi SL enpresarena hobea dela adierazi du eta enpresa horri 2.494.000 pezetako aurrekontua izango duten lanak ematea proposatu du. Dena dela, gaia ostiraleko osoko bilkuran eztabaidatzekotan ziren.

Solidarioekin bat



Asteartean egin zuten bat gose greban dauden solidarioekin.

Arrasaten bizi den atzerritar talde batek bat egin du Euskal Presoak Euskal Herrira aldarrikapenarekin. Zigorraren 3/4ak bete dituzten ia 100 presoaren askatasuna eskatu zuen talde horrek asteartean egingako ekitaldian. Pedro Guridi, Jon Agirre, Jesus Mari Zabarte eta Goio Etxabe ere gogoratu zituzten. Talde horretakoek herri honetan bizi direla eta, presoek bizi duten egoeraz jabetu izanagatik, erabaki dutela euren jarrera azaltzea adierazi zuten.

Bestalde, presoekiko solidarioak sinadurak biltzen ari dira. Kalean, ikastetxeetan eta lantegietan. Osoko bilkuran gose greba egiten ari

diren bi solidarioak pozik agertu dira orain arte bildutako sinadurekin eta preso bakoitza dagoen kartzelara eta espetxeetako epailearengana eramango dituztela adierazi dute.

Asteazkenean 22 egun egin zituzten gose greban bi gazteek eta dezente argaldu duten arren, 12 bat kilo, umorez segitzen dute biek ere.

Horrekin lotuta, igandean Arrasateko Senideak taldeak deituta, kale agerraldia izan zen domekan. "Legea bete dezatela" leloarekin jende ugari hartu zuen parte. Hauek ere herriko presoak eta gose greba egiten ari diren bi solidarioak gogoratu zituzten.

Azoka lekuz aldatuko da

Ostiraletan San Joanen eta San Andresen egiten den merkatu txikia lekuz aldatzea erabaki du udalak.

Jose Mari Urizar "Ametzuk", udal zerbitzuetako buruak, GOITBn azaldu zuenez, "lau arrazoi nagusi daude azoka tokiz aldatzeko. Izan ere, bizilagunek trabak izaten dituzte azoka dela eta; gainera, aste bakoitzean auzo baten izatean jendea nahastu egiten zen eta aparkatzeko arazoak ere izaten ziren. Azkenik, tokia ere txiki gelditu da eta jadanik bestelako ezohiko mahaia jartzeko tokirik ere ez zegoen".

Merkatu txikia LauKaleko plazan jartzea erabaki du udalak, irailaren batetik aurrera.

Auzolandegiak Lezetxikin

Aurten, hirugarren aldiz, gazte talde bat etorriko da Lezetxiki kobazuloan txukuntze lanak egitera, Kutzako Gaztetutxa zerbitzuaren eta Udalaren eskutik.

Gipuzkoa osoko 40 bat boluntario izango dira, eta bi txandatan etorriko dira: 16-18 urtekoak uztailaren 3tik 16ra izango dira gurean, eta 19-25ekoak uztailaren 17tik 30era. Udalako Ingurugiro Eskolan izango dute ostatu. Aurtengo egitasmoak Lezetxikiko azpiko kobarako sarreran estalpea egin eta behar diren seinaleak ipintzea dira.

Auzolandegietako lana Aranzadi Elkartearen lana erraztea da, elkarteak industrietan egiten ahal ditzan.

Madrilgo ikuskatzaileak Elgean

Araba eta Gipuzkoa arteko muga non dagoen erabakitzen etorri ziren Madriletik asteazkenean Elgeara. Mugarriluze eta Aumategi tartean 3. eta 11. mugarririk daude. Tarte horretan jarri dituzten haize-errotak zein udalerriren lurretan dauden erabakitzeko da topografoen lana.

Izan ere, Eolikas de Euskadi enpresak ez daki zein aldundiri ordaindu behar dion lur horien alokairua.

Diputazio eta udaletan bost hilabete barru izango dute azken erabakiaren berri.

Bitartean haize-errotak probatzen segituko dute Eolicasekoek.



DIM

(absolu
sentsazio
biluztua)

(goza ezazu
dohain


Ikus promozioiko oinarriak

(absolu
sentsazio biluztua)

Casa Peciaga

Maalako Errabala,3
ARRASATE
Tel•Faxa: 943 791262

Jai zoriontsuak opa dizkizugu!



Txiki
LAKET

LAKET Txiki
Erdiko kale, 10 • Tel.: 943 79 93 33



LAKET

LAKET
Otalora, z/g • Tel.: 943 79 11 72

Emakume, gizon, ume eta gazteentzat
imajina dezakezun arropa guztia, zeure eskura.
Eta markarik onenak!

argazki bizi-biziak

...bikainak
...opari eta guzti



dendetan,
kalitatezko
argazkiak
eta opariak,
errebelatu
bakoitzean



800
puntu




"Pierre-Cardin"
bidaia poltsa



"Paddock"
erlojua

250
puntu



Argazki-albuma



Nekazal turismoko
gida



"Fruit of the Loom"
kamiseta

Juan Liza
Argazki denda
Uribarri etorbidea, 1
Tel.: 943 77 13 64 • ARRASATE



Kotoi hutsezko
poloa

450
puntu



"Pierre-Cardin"
motxila



50
puntuko
txartela



UGARTE

A R O Z T E G I A



- Apainketa
- Altzariak
- Leihoak
- Ateak
- Horma armairuak

Ondo
pasatu
jaiak!



San Juan, 1 • (Gasolindegiaaren parean) • BERGARA • Tel./ Faxa: 943 76 54 91

URREZKO EZTEIAK

Maiatzaren 22an, Angel Elortzak eta Jesusa Etxebarriak 50 urte bete zituzten ezkontuta, eta ondo merezita ospatu zuten.

Izurietako Elizan meza eta Taberna Berrin familiarterko bazkaria izan zuten. Zorionik bero-beroenak, bikote!



LA MERCEDEKOAK TXANGOAN

La Merced ikastetxeko Haur Hezkuntzako taldeak txangoa egin zuen ekainaren hasieran. 3, 4 eta 5 urteko umeak elkartu ziren, eta formal-formal ibili ziren.

ERGUIN HERRI-ESKOLA LURRASKAN



Erguin Herri-Eskolako 4. eta 5. mailako ikasleak Lurraska Baserri Eskolan izan ziren ekainaren 5 eta 6an. Baserriko sekretutxoak

ikasteaz gain, zaldian paseatzeko aukera ere izan zuten. Eta, jakina, azkenean errepikatze gogoarekin geratu ziren.

LOS VAQUEROS

Zerkaosteta, 3 • 943 79 98 48
Zerkaosteta, 5 • 943 79 97 55

San Joanetan, bakerotan
primeran pasetako!!

**UDAKO
IKASTARO
TRINKOAK**

Uztailaren 3tik 28ra

- Mekanografia ordenagailuz
- Informatika
- Internet
- Microsoft project
- Autokad
- Programazio informatika
- Ingelesa eta euskara
- Gestio kontularia
- Giza baliabideen administrazioa
- Zerga gestioa
- Informatikako tresnerien mantentze eta konponketa
- Musika informatika (MIDI sistema)
- Enpresa-ikasketak (baita abuztuan eta irailean)
- Laguntza eskolak

AKADEMIA
BASTIDA

INEM-ek HOMOLOGATUTAKO IKASTETXEA

Araba Etorbidea, 3 - 1^a
20500 Arrasate-Mondragon
Tel.: 943 79 35 33
Fax: 943 79 06 28
E-mail: bastida@tsai.es

BISITAK ARKON



Bi bisita izan ditugu azken bi asteotan. Lehenengo, Frantziako Enfa agronomia eskolako 17 irakasle izan genituen gurean, Behi-Alde kooperatibak gonbidatuta. Eta, ondoren, guztiz bestelako talde bat: San Vitor Txikiko ikasle mordoxka. Arrasate Press, GOITB eta Irratiko txoko guztiak miatu zituzten.





HAUR DANTZARIEN EGUNA

Joan den asteburuan, Haur Dantzarien Eguna ospatu zen. Euskal Herriko 10 taldetako 400 ume etorri ziren. Kalerik kale ibili ziren dantzaldi politak eskaintzen, eta, ondoren, Arrasateko hainbat etxetara joan ziren bazkaltzera.

DANBORRADAKO BANDERADUNAK

Horra hor gaztetxoek danborradako banderadun eta jenerala: Garazi Carrillo (SUDCen banderaduna); Ander Casado (Jenerala); Amaia Uribarren (ikurrinduna) eta Zuriñe Vados (Arrasateko banderaduna). Primeran jardun zuten zapatuan. Zorionak, eurei eta danborradako guzkiei.

PUNTA-PUNTAKO MUSLARIAK



Domeka arratsaldean IV. Emakumeen Mus Txapelketa izan zen. Feli Iriarte eta Maribel Garro izan ziren aurtengo irabazleak,

eta Tere Ibabe eta Jaione Bengoa, azpitxapeldunak. Hamabi bikote aritu ziren, Roman Lopezekin ikasiak guztiak.



ZABALA oinetakoak

52 urtean elkarrekin ibili gara
Ospa ditzagun San Joanak
Erdiko kale, 18 • Tel.: 943 79 14 27

Mari Jose
Gora San Joanak!
OINETAKOAK

Erdiko kale, 20 • ARRASATE
Tel.: 943 - 79 22 98



Elizondo
kafetegia



Garagartza auzoa • ARRASATE • TEL.: 943 79 15 99

Ohiturak, mitoak eta ipu

Herriko jaiak izateaz gain, ekainaren edo garagarrilaren 21ean udako solstizioa ere ospatzen da. Eguzkia ekuatoretik urrunen aurkitzen den aldia da hauxe; orduan hartzen du eguzkiak ekuatorekiko deklinaziorik -angelurik- handiena edo txikiena. Udako solstizioari (ekainak 21) deklinazio handiena dagokio, eta negukoari (abenduak 22), txikiena.

Ohituraren aginduari jaramon eginez, sua egin ohi da Sanjoan bezperan, herrietan, eta baita baserri aurreetan ere. Antzina-antzinako ohitura da hauxe. Indogermaniarrek ekarritakoa, liburuen arabera. Beraz, kristautasunaren aurrekoa.

EGUZKIAREN IRUDI

Suak esanahi berezia izan du aspalditik munduko kulturetan. Eguzkiarekin lotu izan da eta horrexegatik eguzkiari dagozkion jaietan betidanik egin ohi da sua, udako solstizioan moduan. Euskaldunon antzinako jainkosatariko bat izan da eguzkia; hauxe da euskalariak egindako azterketa: egunaren egilea da eguzkia (Larramendi), egunaren gauzakia (Astarloa), eguna nahiz argia produzitzeko gauza egokia (Van Eys), eguneko argia (Barandiaran) eta abar.

Baina, kristautasunaren etorrerak hau dena ezabatu zuen eta esanahi guztiz desberdina eman zion bai eguzkiaren jainkotasunari, bai eta suaren esanahiari berari ere. Horixe bera da Sanjoan bezperan egiten den suarekin gertatu dena. Ordutik hona, gaitzak, ilunpeetako espiritu gaiztoak, tximistak eta sorginak uxatzeko elementu gisa erabili izan da. Besteak beste, norberarentzat kaltegarri izan

direnak paper batean idatzi eta sutara botatzen dira, hark erretzeko. Abestiak ere badaude horrekin batera esateko:

*San Joan, San Joan,
ez dut nik besterik gogoan,
sugeak, zapoak eta sorginak
erre, erre,
artoak eta gariak gorde,
gorde.*

HERENSUGEA

Baina, ez da Sanjoan sua Mondragoeko jaietan ospatzen den errito mitologiko bakarra. Ezin da ahaztu Mondragoeren izenean bertan ikusten dela herriaren kutsu mitologikoa (Monte del Dragón); baita armarrarian ere. Hortxe ageri da, herensugea, gazteluaren azpian, hain zuzen ere.

Kondaira honako hauxe da: *“Cuando Arrasate primero, por ser leal e guerrero, llamó el Rey Mondragón, donde nacen, donde son, los hombres fuertes de acero; vi un dragón inflamado, Monte y Castillo real, que se ganó en el Salado con las cadenas cercado por ser vencimiento ganado del Puerto del Muradal”.*

Beste ipuin baten arabera, berriz, dragoia, arrasatearrek zapaltzen zituen jauntxoak izan zitezkeen; gazteluak, berriz, Santa Barbarakoa adierazteaz gain, Gaztelako erregearen nagusitasuna adieraziko luke.

UDAKO SOLSTIZIOKO OHITURAK

- Eguzkia, San Joan goizean, dantzan irteten dela uste izatea.
- Ihintzak hezetutako belarretan bainua hartzea edota oinutsik ibiltzea, urte osorako osasuna segurtatzearen.
- Elorri txuriz eta lizarrez ate-leihoak apaintzea, etxea tximisten kontra babesteko.
- Aturreak zenbait lore eta belarrez estaltzea.
- Honakoak urte osoan zehar gordetzea, gaixotasun kasu batzuetan infusioak egiteko.
- Etxaurreetan eta bidegurutzeetan San Joan aurreko gauean sua egitea.
- Soroetara su horietan erretako belar sortak eramatea, espiritu gaiztoak uxatu eta uztan plagak eta gaixotasunak ekiditeko.
- Su horien gainetik jauzi egitea, eritasunak ekiditeko.
- Herriko plazan San Joan arbola aldatzea; arbolaren jabeak ezin eska dezake hori, nahiz bere borondatearen kontra ebakia izan.
- San Joan ermita batzuetara dihoazen erromesek lore eta belarrezko koroak eramatea.
- Etendunak haritzean egindako etenetik hiru aldiz pasatzea, gaixotasuna senda dadin.

kuak

KONDAIRAK

Mitologiaren azterketan, bestalde, herensugeak aipamen bat baino gehiago ditu. Baita Arrasatek ere:

“Iraunsuge edo Herensuge izeneko irelua sugearen irudian agertzen da, “suge” hitzak adierazten duen bezela. Hauek dira bere bizileku aipatuenak: Ertzaganiako leizea (Ahuski mendian), Aralarko leize ustezkoa, Murugain mendia (Mondragoen), eta Orduñako Burkaitza.

Diotenez, irelu hau Aralarren, Murugainen eta Orduñako Burkaitzean bizi zenean, inguruko herriek ematen zioten giza-haragia jaten zuen. Mondragonen diotenez, hango errementari batek hil zuen, horretarako sutegian goriturik zeukan burdin batekin.

Herriek giza opariak eskaintzen zizkieten irelu honi, kristautasunaren etorreran eta teknikek aurrerakada egi-



Arrasateko errementari batek hil zuen dragoia. Argazki hau 1960ko maiatzaren 14koa da.

tean ezkutatu zen, herri esanek diotenez. Baina bere oroipena guganaino iritsi da, Euskal Herriko leku askotan entzun eta jaso ditugun istorio ugarietan”.

“Antzina ba omen zegoen Murugain izeneko mendian Arrasate herria uxatzen zuen herensuge bat. Abere erraldoi horrek zerga bat ezarria omen zien arrasatearrei: urtero herriko neskaren bat ematea jateko, eta puntualki urtero-urtero, Mandoin izeneko mendimagaletik neskatoaren bila jaisten zen. Oraindik ere hau esaten da: Arrasateko gurutzegunetik Olandixora, eta Mandoin eta Untzillako bide-

Murugain izeneko mendian Arrasate herria uxatzen zuen herensuge bat zegoen.

ak, bere buztankaden bidez zabalduko direla.

Beraz, arrasatearrek herensugearekin topo ez egitearren, neskato bat lagatzen zioten Txoxagorri izeneko aldapan, hartu eta jan zezan.

Baina urteak igaro ahal, herritarrak aspertzen hasi ziren gehiegikeria hartaz, eta erabakiren bat hartu behar zutelako zioten. Inguruko herritar bati bururatu zitzaion idearik azkarrena: argizarizko neskato bat egitea gero herensugeari eman ahal izateko.

Esan eta egin. Herensugearen urteroko eguna etorri zenean, Txoxagorri jarri zioten neskatoa, baina orain argizarizkoa. Herensugeak ez zion antzeman eta berehalaxe hasi zen jaten. Bere ikaragarritzko ahoa mugitzen hasi zenean, argizaria urtzen hasi zitzaion, hortzeginak eransten zitzaizkiolarik. Orduan, ezku-

tatuta zeuden zenbait herritarrek, burdinoletan gori-gori jarritako burdin eztenak hartu eta aberearen gorputzean sartu zituzten. Herensugearen garrasiak itzelezkoak izan ziren. Handik laister hil zen, eta harrez gero, pozik bizi izan ziren arrasatearrak”.

Kontuak kontu, sineskeriak edo sineskerak izan, gure arbasoek barneratutako ohiturak ospatzen dira Sanjoanetan, gure kulturaren zati bat, beraz. Nork bere erara ospatzea izango da kontua eta, jakina, ondo ibiltzea. ■

Informazio iturriak:

“Euskal Herriko mitoak”

On Joxe Miel Barandiaran.

“Arrasate Gure Herria” Iñigo

Ramirez de Okariz.

“Lamiak, sorginak eta

jainkosak” Julio Caro Baroja

Ubane Madera

Etixerat Taberna Zaldibarko txapeldun berria



JOKALARI ONENAK

Zazpi jokalarik jaso zituzten antolakuntzak emandako jokalarari nabarmenen errekonozimendua.

- **Jokalarari onena:**
Anartz Azkarraga
(Etixerat Taberna)
- **Jokalarari nabarmenenak:**
Urtzi Berasaluze
(Etixerat Taberna)
Jabi Luengo (DA Iriztu)
Antonio Saez
(Branka Taberna)
Iker Balzategi (AT Lokala)
Gari Irazabal (AT Lokala)
- **Atezain nabarmenena:**
Aner Elorza (Leya)



AC SURKOS-DRIBLING

Bi talde hauek jokatu zituzten hirugarren eta laugarren tokiak eta partida 5 eta 4 amaitu zen AC Surkosen alde. Driblingek sartu zuen lehenengo gola, Axelek hain zuzen ere. Baina, bi taldeak nahiko parekatuta ibili ziren eta partida launa amaitu zen. Luzapenean,

ordea, Castilok sartu zuen garaipenaren gola, bere taldearen aldeko penalti bati esker.

ETXERAT TXAPELDUN

Aldibi izan zen nagusi finaleko lehenengo zatian, baina Etixerat Taberna talde gazteak irabazi egin nahi zuen eta Jon Ajuriak, Iker Uribarrik, Xabier



Markinetek eta Xabier Arbisuk sartutako golei esker irabazi egin zuten 3 eta 4. Etxerategi garaikurrak gain, datorren urteko jantziak egiteko txeke bat

eskuratu zuen. Txapeldunen afaria, berriz, Uarkapen egin zuten. 2., 3. eta 4.ek garaikurrak, txanpana eta urdaiazpikoa ere eskuratu zuten.



AREITIO KIROLAK

Ondo pasau San Joanak

Zarugalde, 35
ARRASATE
Tel.: 943 79 38 38

Baquerentzat San Joan saria



Iñigo Landaluze izan zen San Joan sariko irabazlea.

Larunbatean jokatu zen elite eta 23 urte azpiko San Joan txirrindularitza sari nagusia. 136 kilometroko lasterke-

ta izan zen eta beroa izan zen elementu nagusia.

Daniel Fernandezek, Tegi taldeko txirrindulariak, ihes

egin zuen tropeletik, helmugarako 2 km eta erdi falta zirenean. Baina, gero, Iñigo Landaluzek harrapatu egin zuen eta bera izan zen lehenengoa helmugan.

Azkarrena Baque taldeko Iñigo Landaluze izan zen (3:30:41). Bigarren postuan, Daniel Fernandez (3:30:47), Tegi taldeko txirrindulari gaztea, helmugaratu zen. Eta hirugarren Iñaki Isasi (3:30:51), Olarra taldekoa. Azken honek jantzi zuen, gainera, Euskalduna elastikoa. Denboraldi bikaina egiten ari da Olarrakoa.

Mendiko sailkapeneko saria, Jorge Nogalera Banes-toko txirrindulari gazteak eskuratu zuen.

Txapelketatik kanpo

Gipuzkoako herri arteko txapelketatik kanpo gelditu da Arrasateko pilota taldea. Ostiralean, Azpeitiko pilotalekuan jokatu zuten azkoitiarren aurka.

Aurreko astean azkoitiarrek lortu zituzten aldeko puntuak eta horri probetxua atera zioten Azpeitiko pilotalekuan.

Kadetetan, 8 eta 22 irabazi zuten Egoitz Uribarren eta Aitor Agirrek.

Gazte mailan, Iñigo Jimenez eta Beñat Dominguezek 22 eta 9 galdu zuten eta seniorretan 22 eta 12 galdu zuten Zugastik eta Lazkanok. Datoren urtean izan beharko da.

Primerako goitibeherak Udalan



Sanjoanetako 5. txapelketan sei goitibehera egon ziren eta guztiek ere oso maila altua erakutsi zuten.

Azkarrenak David Laguna eta Aitor Billota bizkaitarrak izan ziren: 2'52". Mikel

Gomez eta Iñigo Lizarralde (lehenengoa atxabaltarra eta bigarrena bergararra) bigarren izan ziren (2'54") eta hirugarren Oskar Arrizabala eta Haritz Billota (bizkaitarrak) sailkatu ziren (3'10").

Arrasatearra, bigarren



Goizeko ekitaldia makal samar irten zen eta arratsalde parterako berrogei lagun inguru elkartu ziren.

Sailkapena honako hau izan zen:

1- Jose Ortiz (Gernika)

2- Asier Abasolo (Arrasate)
3- Manuel Azkue (Zumaia)

LEINTZE ELKARTETIK:

1- Bittor Murgiondo
2- Eduardo Uribesalago
3- Felisa Galfarsoro

ORTO + LAGUN

O R T O P E D I A

Ondo ibili jaixetan
larrei okertu barik!!


Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 89 34



- Ordenagailuak
- Inprimagailuak
- Konponketak
- Eguneratzeak
- Osagarriak
- Internet

Okendo, 1 • Tel./Faxa: 943 77 16 68
E-Mail: microsinformatica@jet.es

Mondrako entrenatzaile berriak



Raul Leiba entrenatzaile berria.



David Zaitegi laguntzailea.

Mondrako lehen erregionaleko taldeak entrenatzaile berria dauka: Raul Leiba. 26 urte ditu eta Mondrako lehen taldeko

jokalari ohia da. Iaz ohorezko kadeteak entrenatzen aritu zen eta Juanina Garairen ordeztalde nagusiaren ardura hartzea

erabaki du. Izan ere, Juaninak Bergarako hirugarren mailako taldea entrenatuko du datorren denboraldian.

Dena dela, Raul ez da bakarrik egongo. Berarekin David Zaitegi arituko da. Hau ere ezaguna da futbolarien artean, izan ere, gazte mailako taldeekin lan egin du entrenatzaile lanetan.

Zaitegik adierazi digunez, "datorren urtean, helburu nagusia mailaz igotzea izango da, izan ere, aurtan taldean gazte asko aritu dira eta talde majoa egin dute".

Dominak etxera

Gasteizko Mendizorrotzako pistetan jokatu zen joan den larunbatean Euskal Herriko junior mailako txapelketa eta Arrasate Kirolak taldekoek brontzezko domina irabazi zuen 4 x100 txandakako lasterketan. Tadea Jon Igartua oñatiarrak eta Unai Sarabiak, Jonathan Perezek eta Mikel Apraiz mondragoetarrek osatu zuten. Bestalde, Talabera de la Reinan Mari Jose Gilek urrezko eta zilarrezko dominak irabazi zituen 1.500 eta 5.000 metrotan, Espainiako txapelketan.

Debarroko I. Golf Txapelketa

"San Joan saria" jokatu da datorren astelehenean, hilaren 26an, Legutioko Larrabea Golf Elkartearen Debarroko I. Golf Txapelketa izango da eta Arrasateko Kirol Elkarteak antolatatu du.

Mikel Etxabek adierazi digunez, "Debarroan golfzale asko dago, baina bailaran ez dago horrelako txapelketarik. Hori dela eta, golfa eliteko kirola ez dela erakusteko bultzatu dugu txapelketa, Arrasateko Kirol Elkartearen laguntzarekin".

Parte hartzaileen artean, gehienak Arrasate eta Aretxabaletakoak izango dira. "50-55 jokalarari espe-

ro digutu eta hauetatik 20 bat Mondragoe eta Aretxabaletakoak izango dira".

Txapelketa hiru mailatan jokatu da, batetik emakumeak eta bestetik 0-20 *handicaper* arte eta 20-28ra arte. Parte hartzaileak adin guztietakoak izango dira "gazteenak 11 urte ditu eta zaharrenak, berriz, 65. Horrek golfa adin guztietako jendearentzat dela erakusten du".

Txapelketa astelehenean, goizeko 08:00etan, hasiko da eta 14:00ak arte iraungo du.

Bestalde, hasi da, iaz bezala, enpresen arteko nazioarteko txapelketa eta Arrasatekoak ere horari dira.

Fagor Gipuzkoako Itzulian



Fagor taldeko Imanol Solis, Josu Beitia, Aitor Odriozola, Aitor Frutos eta Eneko Perez txirrindulariak gaurtik eta astelehenera bitartean, beste 23 talderekin arituko dira Gipuzkoako Itzulian. Jose Frutos entrenatzaileak adierazi digunez, "lasterketa gogorra da oso. Mendate asko dauzka eta

gure mutilak ez daude ohi-tuta egun bat baino gehiagoko lasterketetara, hala ere, Josu Beitia ondo ibili da aurreko lasterketetan eta bera izango da taldea gidatuko duena".

Lehiakortasun handiko lasterketa izango da, 24 taldek hartuko dutelako parte Gipuzkoako Itzulian.

Jose Antonio

ILE APAINTZAILEA

Jai zoriontsuak izan!

Otalora Lizentziatua, 22 behea
Tel.: 943 79 42 10

Jai Zoriontsuak!



Sebero Altube, 8 • Tel.: 943 79 94 99 • ARRASATE

HEMEN
gozotegia
Brasileña kafeak
Kruasandegia

HIES
BERRI

Tel.: 943 79 26 99

TITARE

Olarte, 6 • ARRASATE
943 77 10 16



Merezi duzulako.
Distiraz inguratuko zaitugu.

Jai zoriontsuak izan!



Garibai etorbidea, z/g

Tel.: 943 79 59 00/943 79 52 23

Faxa: 943 79 41 11



"la Caixa"



GIDE COLOR



MILAKA KOLORE EGITEN DITUGU MOMENTUAN

- *Etxe aurrealdeak margotzen bikainak gara!*
- *10 eta 15 urteko bermea, aseguru polizakin.*
- *Nobedadeak oholtza flotagarrietan*



Tel.: 943 76 52 42. Faxa: 943 76 56 17 • Amillaga, 5 (Renault-en ondoan)
 Ordutegia: 08:00-13:00 eta 14:30-19:15 • Larunbatetan: 09:30-13:00
 Mamut eraikina, 2. solairua, 13. atea • Tel.: 943 49 29 78 • OIARTZUN

Analisi klinikoentzako odol ateratze zentro berria, Arrasaten



Orain, Mendia zentru medikoan, odol ateratze zentro berriaren zabalera

- Azterketa hematologikoak eta medikuntza prebentiboko ikerketa biokimiko, hormonal eta serologikoak,... egiten dira.
- Enpresa, talde eta partikularren analisi klinikoak egiten dira.
- Aseguru konpainia nagusiekin hitzartutako zentroa: LAGUN-ARO, PREVIASA, AEGON ...
- **Odol ateratze ordutegia:**
 Astelehenetik ostiralera: 7 1/2tik - 10etara
 Larunbatak: 8 1/2tik - 10etara.

Medikuntza Zentroa. Mendia jauregia
 Erdiko kale, 22 • ARRASATE. Tel.: 943 79 72 16

Erla
 Analisi klinikoak

I. Ladorra Erdozain

Amaitu gabeko historia interesgarria


"San Joan Bataiatzailearen amaitu gabeko historia garrantzitsua" liburua aurkeztu zuten asteazkenean Jose Mari Astigarraga parrokoak eta liburua idatzi duten historialariek, Carmela Rocha, Pedro Barruso, Migel Larrañaga eta Jose Angel Lemak.

Liburu historikoa da, ez erlijiosoa. Izan ere, historia-ren gau ilunean galtzen da Arrasateko eliza nagusiaren historia, Alfonso X.ak Mondragon hiria sortu zueneko garaian, hain zuzen ere.

IKERKETA SERIOA

Arrasateko parrokoak, Jose Maria Astigarragak, dioenez, Arrasatek ez du bere historia jasotzen duen ikerketa serio-rik, eta horregatik ekin zion liburu honetan gauzatu den lanari.

Liburuak 207 orrialde ditu eta bi zati nagusitan banatzen da. Lehenengoan, parrokiaren historia kontatzen da; bigarrenean, berrizte lanak. 2.000 ale ateradira, eta erdia eliza berrizteko dirua jarri zuten lagunei banatuko zaie. Salgai daude-



Una interesante e inacabada historia

nak 2.500 pezetan eskura daitezke.

Margo lehiaketa koloretsua

Atzotik hasita, Monterroneko aretoan ikusgai eta erosgai daude joan den domekako Margo Lehiaketako hainbat lan. 13 urtera arteko lehiakideen fruituak dira, hain zuzen ere. Egileek ipini dizkiote salneurria euren lanei, eta erakusketa amaitzerakoan, uztailaren 9an, jaso ahal izango dituzte erosleek. Lehiakide helduenak, bestalde, Donostiako Udaletxean daude, hiri-buruko eta Ordiziako lehiakideenekin batera.

Hiru herri horietan ospatu zen domekan Tamayo paperdendak antolatutako Margo Lehiaketa. Mondragoen lehen aldian zen, baina Donostian eta Ordizian lehenago ere egin izan da lehiaketa hau. Gure herrian, lehiakideek herriko plaza eta Monterron aukeratu zituzten inspiratzeko eta euren irudimena oihaltan islatzeko. Adin guztietako artistak aritu ziren. Epaimahaiaren erabakia egun hauetan eman- go da jakitera.



Zorionak, Goikobalu!



Logroñoko Autoleko Abesbatza Txapelketa irabazi du Goikobaluk.

Arrasateko Goikobalu Abesbatza lehen sariarekin itzuli da herrira, Logroñoko Autoleko Abesbatza Txapelketatik. 250.000 pezetako saria eta garaiku-

rra irabazteaz gain, lehen postu horrek datorren urtean Madrilgo Griñon herrian jokatu den Espainiako Abesbatzen Lehiaketan parte hartzeko bidea zabaldu die

arrasatearrei.

Joan den domekan izan zen Autoleko Txapelketa. Zortzi abesbatza ibili ziren lehian, eta horien artean, Goikobaluz gain, Hondarribiako talde bat zegoen.

BOSTETIK LAU

Dena dela, Goikobaluk ondo daki zer den era honetako txapelketak irabaztea. Hamar urtetan bost sariketara aurkeztu da Mondragoeko abesbatza, eta horietatik lautan lortu dute garaipena. Arrakasta handiak ez du irabaztearen ilusioa murriztu, asteburu honetakoak ere poz handia eman baitie mondragoetarrei. Zorionak gure partetik ere, eta zorte on Goikobaluri!

MURUAMENDIARAZ

GOZOTEGIA

Jai foxo-foxoak izateko

Erdiko kale, 28 • Tel.: 943 79 15 34



BOLIÑETE

OILASKO ERRETEGIA
Bertan jateko edo eramateko.

San Juan jai zoriontsuak opa dizkie bere bezeroei

Zarugalde, 24 • ARRASATE • Tel.: 943 79 39 91

ENRIKE ETA ESTEBAN DOLARA (SANJOANETAKO KARTELAREN EGILEAK)

“Kiliki eta erraldoiak omendu ditugu”

Enrike eta Esteban Dolara anaiek harreman estua dute jaiekin, Arrasateko gaiteroak direlako. Orain hamarkada batetik, urtero-urtero ibiltzen dira kiliki eta erraldoiekin Sanjoanetako kale giroa ipintzen, eta eurek aitortzen duten bezala, horrek harreman estua sortarazten du Sanjoan jaiekin. Baina aurten, harreman hori estuagoa da; eurek eta arreba Terek irabazi dute Sanjoanetako kartel lehiaketa, eta irudi hori da aurtengo jaietako ikurra.

—Lehenago ere aurkeztu zarete kartel lehiaketa honetara?

—Bai, aurreko bi urteotan. Dena dela, ez dugu inoiz ezertxo ere irabazi.

—Nolatan aurkeztu zineten?

Diseinu industrialean egiten dugu lan, baina kartelak egitea denborapasa besterik ez da.

—Zein teknika aukeratu duzue kartela egiteko?

—Ordenagailuz egin dugu. Corelize-



neko programa erabili dugu, eta inprimaketa ere berezia izan da. Lehenengo erraldoi baten argazkia atera genuen, eta hortik marrazkia. Ondoren, ordenadorean fonda, itzalak etabar gehitu genizkion.

—Epaimahaiaren esanetan, kolore biziengatik, “jaien mugimendua adierazteagatik eta kiliki eta erraldoien lana eskertzeko modu bat delako aukeratu du zuen kartela”...

—Hori zen gure asmoa, kiliki eta erraldoiak omentzea.

Sanjoanak kalean bizi izan ditugu beti, kiliki eta erraldoien ondoan, bazterrak girotzen. Hori da gure mundua, guretzako jaietako gertakizunik bereziena. Erraldoiak ateratzek eta dantza arazteak lana eskatzen du, eta erraldoi eta kilikien barruan dagoen pertsonarekin fijatu gara.

Gure kartelean beraiek dira protagonista, eta, jakina, baita sua ere. Oso gustura gaude azken emaitzarekin.

—Beste ezaugarririk azpimarratzekotan?

—Akaso, aurreko estiloarekin apurto dugula. Portaloia, danborrada edo dantzariak askotan agertu izan dira eta guk beste aitzaki bat aukeratu dugu.

“Kiliki eta erraldoiak jaietako gertakizunik berezietakoak dira”

Euskal Herrian
bakarra!

C&C

LLONGUERAS

ILE APAINDEGI ETA ESTETIKA HEZKUNTZA ZENTROA
Olagibel kalea, 61 • Tel.: 945 12 03 60 Gasteiz

ERRESUMA BATUKO 3. MAILAKO TITULUA

Arabako homologatutako zentro bakarra. Europako titulurik ospetsuena.

LANBIDE HEZIKETA ZENTROA

OSASUN HEZIKETA ZENTROA



ESKAINITZA:
ILE APAINDEGIA
ESTETIKA

Independentzia, 22-1 • Gasteiz • Tel.: 945 12 07 32

KLINIKA LAGUNTAILEA
GERIATRIA LAG.
HAURTZAINZA LAG.



OSASUN HEZIKETA
ZENTROA

RPS: 228/98

TTUKUN

Fotokopiak
Liburu josteak
Fotokopiak koloretan
Planoen kopia
Offset-a

Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62



Txitxinpe

Berezitasunak
Kazuelatxoak
Otarako hotz eta beroak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

Sanjoanetako hitzorduak

26

astelehena

- 08:30** Diana, Arrasateko gaiteroekin.
- 09:00** Entzierroa eta bigantxak.
- 11:00** Kalejira, *Incansables* txarangarekin.
- 11:00** Arrasateko Erraldoi eta Kilikien Konpartsa.
- 12:30** Kalejira, Arrasateko trikitilariekin.
- 14:30** Herri-bazkaria, Uarkapen.
- 18:00** *Petrikiloak* haur antzerkia, herriko plazan.
- 19:00** Kalejira, *Incansables* txarangarekin.
- 19:00** Koadrillen jolasak eta karaokea, txosna gunean.
- 19:30** Soka dantza, herriko plazan.
- 20:00** Seber Altube eta Portaloian kale antzerkia.
- 20:15** Txinparta taldearekin dantzaldia, herriko plazan.
- 23:00** Txinparta taldearekin dantzaldia, herriko plazan.
- 00:00** Koadrillek bukaera emango diote jaiei, herriko plazan.

24

zapatua

San Joan eguna

- 08:30** Diana, Arrasateko gaiteroekin.
- 09:00** Entzierroa, Ferreriasetik Laubideko zezen plazaraino. Gero, zaleendako bigantxak.
- 11:00** Meza nagusia, San Joan Bataiatzailearen parrokiari.
- 11:00** Arrasateko Erraldoi eta Kilikien Konpartsa.
- 11:30** Arrasate Musikaleko Musika Bandaren kalejira.
- 12:00** Ohorezko aurrekua eta San Joan zortzikoa, herriko plazan.
- 12:30** 80 urtetik gorakoei omenaldia, Abaroan.
- 13:00** Arrasate Musikaleko musika bandaren kontzertua, Monterron parkean.
- 16:00** Herri Arteko IV. Xake Txapelketa Seber Altuben: partida lasterrak.
- 18:00** Arku tiroketa lehiaketa, Zaldibar pilotalekuan.
- 18:00** Profesional mailako pilota partidak, Uarkape Udal Pilotalekuan.
- 19:00** Kalejira, Arrasateko gaiteroekin.
- 19:30** Txosna gunetik hasita, bertso-poteoa, Oihane Enbeita eta Beñat Gaztelurrutiarekin.
- 20:00** Rock kontzertua, Monterron parkean: *Kañeria 13, Eraso!, Selektha Kolektiboa, The Hot Dogs* eta *Ekon*.
- 21:00** Dragoi jana, herriko plazan: txalaparta,

bertsolariak, Goikobalu, gaiteroak, trikitilariak, txiste kontalariak.

23:15 *Gozategi* taldearekin dantzaldia, herriko plazan.

00:00 Santa Barbaratik suzko erruberak.

25

domeka

Haur eta gaztetxoaren eguna eta Fanfareen alardea

- 08:30** Diana, Arrasateko gaiteroekin.
- 09:00** Entzierroa eta bigantxak, zezen-plazan.
- 09:00** Argazki Rallya ASA elkartean.
- 10:00** Txarangalaru tailerra, Seber Altuben.
- 11:00** Fanfareen kalejira, Nafarroa Ibilbidetik herriko plazaraino.
- 12:00** Eguzkilaruri ongi etorria eta jolas parkea.
- 14:30** Haur eta gaztetxoentzako bazkaria, Zaldibarren.
- 16:00** Eguzkilaruren jolas parkea, Zaldibarren.
- 17:45** Txikiglub kale-animazioa, Zaldibarren.
- 18:00** Fanfareekin kalejira.
- 18:45** Eguzkilaruri agurra, Zaldibarren.
- 20:00** AEDko bertso eskolakoekin bertso trama, txosna gunean.
- 23:00** *Tirri Tarra* taldea, Monterron parkean.
- 23:00** *Egan* taldearekin dantzaldia, herriko plazan.
- 23:30** Zezen suzkoa, herriko plazan
- 00:30** Rock kontzertua, VS. eta *Betagarri* taldeekin, txosna

23

egubakoitza

San Joan bezpera


- 15:00** Diana, Arrasateko txistulariekin.
- 16:00** Etxafleroak eta bonba japoniarrak, herriko plazan.
- 16:00** Koadrilak Maalan elkartuko dira, makala herriko plazaraino ekartzeko.
- 17:00** Koadrillek makala jasoko dute, herriko plazan.
- 19:30** Koadrillen herri-poteoa.
- 19:30** Salbe nagusia, San Joan Bataiatzailearen parrokiari.
- 21:30** Nafarroa Etorbidetik Herriko plazaraino Errementari Dantza. Arrasateko euskal musika eta dantza taldeek hartuko dute parte.
- 22:30** San Joan Sua, herriko plazan.
- 23:00** Nafarroa Etorbidetik irten eta herriko kaleetan zehar, Eskoriatzako Musika Bandarekin, Helduen Tanborrada, SUDCek antolatuta.
- 01:00** *Gaubela* taldearekin dantzaldia, herriko plazan.
- 01:00** *Gaztelu Konbo* perkusio taldearen emanaldia, txosna gunean.

29

eguna

- 19:00** XXI. San Joan Pilota Txapelketa, Uarkape Udal Pilotalekuan.

geurrian onena eg



MUXIBAR


Tel.: 943 79 11 25

PIZZAK

IRATI TABERNA

Ferrerrias kalea • Tel.: 943 79 56 11
ARRASATE

SAN JOANAK
ONDO PASATZEKO...



Iturriotz, 12 • ARRASATE



Olarte 37, Behea Tel.: 943 796 792 Arrasate

Cine Desberdin Bat!

Aupa San Joanak!
Aupa Arrasate!

OKORETEGI

KAFETEGIA

Juan Carlos Guerra, 5 behea • ARRASATE • Tel.: 943 77 03 62

ETXERAT TABERNA

ZURGIN KANTOI, 5 • Tel.: 943 79 20 52 • ARRASATE

EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA!



nanfan nanfan nanfan nanfan nanfan

gironik un danian



ALDAPE

Taberna

Espezialitatea: menua-karta

Iturriotz, 41
Tel.: 943 79 70 41
ARRASATE

**Plus Ultra
taberna**

Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tel. 943 79 20 57

CAFÉ

IAMAI

KONTZEZIMO KALEA 14

943 71 29 95 - 20600 ARRASATE

**ESKIÑA
taberna**

Ondo ibili San Joanetan!
Olarte, 25 • ARRASATE • Tel.: 943 79 20 20

KYMETZ

Kazuelatxoak,
ogitartekoak eta
pintxoak

Maala, 15
Tel.: 943 79 60 14
ARRASATE

**ARROGOI
TABERNA**

San Joanak iritsi dira, zatorz zuzana!

Zarugalde, 28 • ARRASATE • 943 79 06 40

RUMBA TABERNA

JAI ZORIONTSUAK IZAN!!

Iturriotz kalea
ARRASATE • Tel.: 943 79 20 00



**Aupa arrasatearrak!
Aupa San Joanak!**

DISCO-BAR




**Disco-Bar Gurelekuk
SAN JOAN ZORIONTSUAK
opa dizkizu.**

Zarugalde, 17 beheka • ARRASATE
Tel.: 943 79 20 29

anfán anfán anfán anfán anfán

S. Carrascal S.L.



Hemen bertan egindako

- **Sukalde altzariak**
- **Horma armairuak**
- **Bestelako armairuak**
- **Eta abar**

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu.

Fabrikan erakusketa: Gipuzkoa Etorbidea, 6-1 A. Tel./Faxa: 943 79 01 82





SIKOL


Uda honetarako
aukerarik
zabalena bainu
jantzitan

OIHALETAN
%50eko
deskontua

Olarte, 31 • ARRASATE
Tel.: 943 79 89 32



beherapenak %30



u d a l a i t z

A R R A S A T E

erdiko kale 42 • arrasate • tel.: 943 77 00 68

Salbea: elizkoia, herrikoia

Herrietako patroien jaiak ospatzen lehena Eliza izaten da, bezperan ekiten baitizkio santua omentzeko eginkizunei. Lehen ekintza Salbe Nagusia izaten da, aurten ostiral honetan izango dena, 19:30ean, Parrokian.

Sasoi batean, *Bezperak* eta ondoren *Nobenak* kantatzen ziren, eta horien bukaera zen Salbea. Horixe geratu da bezperako ospakizunetako kantu moduan. Jaiak herriko patroiarri eskaintzeko modua da Salbe Nagusia.

HERRITARRAK BATU

Hala ere, erlijio zentzuaz gain, beste bat ere badu Salbeak. Mondragoeko parrokoak, Jose Maria Astigarragak, ematen digu horren berri: "Herrikoitasun zentzu handia du Salbeak. Garai batean, kanpoan bizi ziren herriko semeak etxera etortzen ziren jaietan, eta parte hartzen zuten lehen eginkizuna Salbea zen. Herritarrak batzeko ekintza zen." Izan ere, ba ote dago bandera zuri-morea eta patroia irudia baino ikur herrikoia gorik? Horiexek era-



Ohi bezala San Joanen irudia eramango dute udal ordezkariak.

maten dituzte alkateak eta zinegotziek parrokiaraino, musika eta herritarrak lagun. San Joanen ereserkia ere abes-

ten da, eta une horietan, parrokoaren esanetan, "lagun asko, hunkituta, negarrez hasten da".

SAN JOANEN ERESI ZAHARRA

Hainbat arrasatearri malkoak eragiten dizkion Eresi Nagusia ez da historian izan den bakararra. David Arzamendik, Parrokiako organojoleak, mutikotan honako hau kantatzen zuen:

*Igaz ere San Juan San
Juan zan eta
Aurten ere San Juan
Bautista.
Jesukristoren lengusua
zan
San Juan San Juan
Bautista.
Au da egia, dana
guztia,
Kontsolatutzeko mundu
guztia.
Ibai guztiak agortu
dira,
Arrai gaixoak egarri.
Datorren urtian
mutikotxuak
Nun egingo dute igari.
Au da egia, dana
guztia,
Kontsolatutzeko mundu
guztia.*

RAMÓN OTAMENDI
HARATEGIA

Berezitasunak:
Hemengo okela, buzkantzak eta txorizoa

Ferrerrias, 20 • ARRASATE • Tel.: 943 79 62 28

ARRASATE
GARBIKETAK S. COOP.

San Joanetan girorik ederrena opa dizuegu

Uribarri, 20 ARRASATE
Tel. eta Faxa: 943 79 70 39

ARRASATE
AUTOZERBITZUA

Jaietan, ondo pasatu!

Uribarri, 20 ARRASATE
Tel.: 943 79 52 76

Comercial ARPE

Haratuzteetan aldatu zure orrazkera

Kontzeziño, 4 behea
ARRASATE
Tel.: 943 79 78 09

TXIRRITA
Taberna

Garagardo ona Giro hobea

Gesalibar auzoa
Tel.: 943 79 10 35

Euskal presoak Euskal Herrira



Joseba Garitaonandia




Jon Agirre



Josu Uribetxebarria



Goio Etxabe



Jose I. Gaztañaga



Kepa Urra




Josu Arkauz



Unai Parot



Pedro Guridi



Jesus Mari Zabarte

Etxean
nahi
ditugu

Idatziezu!
Tabernetan
dituzu
helbideak


Errefuxiatuak



Enrike Letona



Jose Gabriel Urizar




Luis Mari Azkargorta



24 egun gose greban
presoen alde

Arrasateko Alde Zaharreko tabernak:

Biona, Ekaitz, Etxerat, Iluntz, Irati, Iturriotz, Jaizale, Kimetz



**Zuretzat,
bidalketa sistema
fidagarri bat edukitzea
ez da aukerarik garrantzitsuena.**

Bakarra da.

BIDALI BEHARREKO ZERBAIT
GURE ESKUETAN JARTZEN DUZUNEAN,
AHALEGIN ETA ITXAROPEN OSOZ
EGINDAKO LANA, JASO DUGUN MODUAN
MERKATURATZEA NAHI DUZU.
BESTALDE, BEZEROEKIKO KONPROMISO BATZUK
BETE BEHAR DITUZU,
ALDI BEREAN HAUEK ERE
BERAIENAK BETE AHAL IZAN DITZATEN.
BIDALKETA,
ZEURE NAHIAREN ARABERA
EGITEA ESKATZEN DUZU,
BESTERIK EZ.
HORI DELA ETA, BIDALTZE SISTEMA EGOKI
ETA GUZTIZ FIDAGARRIA ESKAINTZEN DIZUGU,
HORRELA ZEURE BETEBEHARRAK
GARAIZ BETE DITZAZUN.
HORRELAKO XEA DUZU ENPRESETAKO PAKETEA
ATEZ ATE BANATZEN,
ERABATEKO ESPEZIALIZAZIOA
ETA NAGUSITASUNA LORTU DUEN ZERBITZUA,
GUIPUZCOANAREN ZERBITZUA. ZEUREA.



GUIPUZCOANA
EURO EXPRESS



Beti garaiz.

Koadrillek jasoko dute makala

Zortzi bat koadrillaren artean jasoko dute makala aurtengo Sanjoan jaietarako. Ekainaren 23an izango da hori, Sanjoan egunaren bezperan. Arratsaldeko lauretan Maalan elkartuko dira Arrasateko hainbat gazte, eta bizkarrean ekarriko dute makala udaletxe aurreraino, Portaloitik barrena.

ASPALDIKO OHITURA

Herriko plazan makala jartzeko ohitura urteetan galdu-ta egon ondoren, 1983. urtean berriro hasi ziren herriko soldadugaiak langintza horretan. 1993an eta 1994an ez zen herria jaietan dagoen sinbolo den hori, zuhaitza alegia, altxatu. Izan ere, jendea ez zegoen makala altxatzeko prest. 1996an herriko koadrillak berriro hasi ziren zeregin horretan, baina 1998. urtetik



1997an hartutako irudia.

aurrera "Parques y Jardines de Abadiano" enpresaren esku egon da makala jasotzea.

Aurten Jabi Lopez aritu da koadrillen arteko koordinazio lanetan. Jose Ramon Arkauz kultura zinegotziak egin zion gonbitea, makala koadrillek jaso zezaten. Hainbat bilera

egin ondoren, herriko gazteak prest agertu ziren aurrera egiteko. Egia esan, gauza jakina da denontzat makala herriko lagun taldeek jasotzeak beste bizitasun bat ematen diola jaiari. Eta helburu hori izan du udalak, koadrillei gonbitea egitekoan: giroa sortzea.

SOKAK ETA POLEAK

Lau soka erabiliko dituzte makala jasotzeko. Horietako bik udaletxeko balkoitik eutsiko dute makala, txirrika edo poleen bidez. Dena dela, makala jasoko dutenetako batzuk ibilita daude aurreko urteetan langintza horretan eta Jabik ez du inolako zalantzarik: "kosta ahala kosta, jasoko dugu makala".

Makala jaso ondoren, kalimotxo eta garagardoa dohainik edukiko dute nahi duten guztiek eta herri-poteoa ere egingo da, 19:30ean.

Makala jasotzea ez da udalak herriko koadrillekin elkarlanean antolatu duen bakarra. Monterroneko rock kontzertua eta ekainaren 26ko koadrillen arteko jolasak ere antolatu dituzte eta. Ekainaren 26koa 19:00etan izango da.

GORKA
ILEAPAINDEGIA
LUZAPENAK

ORDUTEGIA:
Astelehenetan itxita.
Asteartetik ostiralera:
09:30 - 20:00
Larunbatetan:
08:00 - 14:30

SOLARIUMA

Ferrerias, 35 ARRASATE
Tel.: 943 77 13 78

U N Z U E T A

J A T E T X E A

- Eguneko menua
- Espezialitatea: Txuleta parrillan
- Karta

Zabola auzoa. ARAMAIO • Tel.: 945 44 50 95



SEGUROS S.L.



ZURICH
ASEGURUAK

Casimiro Briz Salinero
Aseguru-Aholkularia

Bulegoa: Eskatu Pabilioia
Araba Etorbidea, 3-2. solairua
Tel./Faxa: 943 79 42 35 • Tel.: 943 79 71 52
ARRASATE

Barren kale, 44
Tel.: 943 76 57 85 • Faxa: 943 76 92 46
20570 BERGARA

Errementari jauna klunka eta klunka

Horrela dio abestiak: "Errementari jauna klunka eta klunka, argi mailuakin begirik ez dauka. Gure hauspoa oso bertzten ez bada, etxera perratuta bueltatuko gara. Sua, lana ta jaia martxan jartzen ditu, bata itxungi da, ta bestea ixotu. Herensugea sua poliki emunik, behin erre ginen eta berriz erre barik", eta horixe abestuko dute herriko dantzariak, berriz ere, San Joan bezperan. Zortzigarren urtez "Errementari dantzaren" doinuak mondragoetarrak hunkituko ditu eta herriko plazara heltzean, dragoiari sua eta suaren bueltan dantzan egingo dute. Aurtentzen, gainera, herriko alkateak ere dantza egingo du, ohiturari jarraituz.

Lore Gazteak eta Arrostitz dantza taldeetako 50 bat bikote aterako dira. Arrostitz



21:30ean hasiko da Errementari Dantza, Nafarroa etorbidean.

taldeko 19 bikote eta Lore Gazteak taldeko beste 31 irtengo dira Nafarroa etorbideetik eta bi geldiuene egingo dituzte dantza egiteko; bata Seber Altuben eta bestea herriko plazan. Jose Jaime Bengoak, "Gomixek", esan digunez, "bikoteak ez dira gehiago,

batetik, herriko plaza handiagoa ez delako eta, bestetik, dantzariak bakarrik ateratzen garelako; hasiera-hasieratik dantza taldeetako kideak izan gara Errementari Dantza egin dugunak. Dantza ondo errepresentatu nahi badugu, dantzariak egitea eskatzen du;

dena dela, bada dantza taldeko kidea izan gabe, berriz ere gurekin arituko dena, Arresti. Berak hasieratik lan egin zuen gurekin eta dantza egin nahi zuenez, dantza taldeko kide baten bikote bezala hasi zen".

Bikote gazteak ere aritzen dira dantzan. "12 urtetik gorako bikoteak izaten dira. Baina, ez dira kide guztiak dantza taldean ari direnak, batez ere, mutilak aurkitzeko arazoak izaten ditugulako; kasu hauetan dantza taldean aritukoengana jotzen dugu".

Kontuak kontu, San Joan bezperan berriz ere ikusiko dugu dantzari bikoteek osatutako ilara luzea, Nafarroa etorbideetik hasi eta herriko plazaraino Arrasateko Bandarekin, Jose Ramon Vitoriak egingako musikarekin dantzan.

Danborrada, markak apurtzen

Egubakoitzean, 23:00etatik aurrera, San Juanetako ekitaldirik ikusgarrienetarikoa batek hartuko ditu kaleak: Danborrada nagusiak. Aurtentzen, gainera, partehartze errekorrak apurtu dira, 300 lagun irtengo baitira kalerik kale, iaz baino 75 bat gehiago.

Gainbehera urte batzuk izan ziren, baina, SUDCeko esanetan, jendea motibatua dago berriro eta ikuskizun honi eutsi nahian egin du izenematea.

BI KONPAINIA BERRI

Zazpi danborjole konpainia irtengo dira aurtentzen, eta beste bi danborrik gabe, abanderatuena eta sukaldariena. Horietako bi berriak dira: Montxon Elkartearena, 55 lagunek osatua, eta Txalaparta, 26rekin. Biak gizon nahiz emakumezkoek osatzen dituzte.



Iaz Beti Gazte konpainia estreinatu zen San Joanetako danborradan.

Banderadunak, berriz, ondokoak izango dira: Pepi Gorosabel -amazona-, Eva Romero -SUDCeko banderaduna-, Sandra Alvarez -Arrasateko banderaduna- eta Erika Alvarez -ikurrinduna.

Lagun horiek guztiak Eskoriatzako Musika Bandaren hotsen erritmora ibiliko dira Arrasaten zehar.

ARROPEN ARAZOA

Eta, jakina, konpainia berri bat

sortzen den bakoitzean, jantzi berriak ikusten dira desfilean parte hartzen. Arropei dagokienez, berrikuntza bat sartu dute antolatzaileek: aurtentik hasita, sortzen den konpainia bakoitzak bere kabuz erosi beharko ditu arropak. Izan ere, arropak direla eta ez direla, arazo handiak izan dituzte SUDCekoek, jendeak ez baitzituen erabilitako jantziak bueltatzen. Hartu berri den neurria oso positibotzat jotzen du SUDCek.

Badakizue, beraz, aurtentzen inoiz baino danborrada jendetsuagoarekin begiak ondo gozatzeko aukera izango duzue. Eta ez begiak bakarrik: gozokiak botako dituzte parte hartzaileek, eta bukeran, bokatak eta txistorra pintxoak banatuko dira. On egin!

Haur eta Gaztetxoek Festa

Txatxilipurdik egitarau oparoa prestatu du datorren domekarako: Haur eta Gaztetxoek Festa eta Eguzkilaru Eguna.

Goizeko 9etan, Txatxilipurdik diana joko du herriko auzo guztietan zehar, umeei jakinarazteko hitzordua dutela 10etan Seber Altuben. Bertan, Txarangalaru Tailerrean txarangarako tresnak prestatuko dituzte. Eta agudo, gainera, 11etan prest egon behar du eta Txarangalaruk herri osoan zehar kalejira egiteko. Eta kalejirarekin batera, altxorren bilaketa, Txatxilipurdik sakabanatutako pistekin.

ONGI ETORRIA

Eguerdiko 12etan, eguzkia galdatan izango da. Une ezin aproposagoa eguneko bisitari garrantzitsuenari ongi etorria emateko. Orduantxe etorriko da Eguzkilaru, Anbotoko Marik agindu bezala, haur eta gaztetxoei egun ezin alaia eta argitsuagoa ekartzera.

Aurten, gainera, sorpresa berezia izango da. Danel Gokolea eta Txatxilipurdiko lagunak Anbotoko Marirekin hizketan izan dira eta horixe



aurreratu digute: "Eguzkilaruk itxura aldatuko du, San Joanetan Arrasateko neska-mutikoak ikustera etortzeko".

14:00etan, indarberritzeko, orain urte batzuetako ekin-

tza bat berreskuratuko da: herri-bazkaria gaztetxoentzako. Bakoitzak bere ogitartekoa eramanda, Zaldibarraren itzal bat bilatu eta bazkalduko dute. 17:30ak arte



zabalik izango da jolas parkea, eta Txikigrup taldeak giroa jarriko du, guztiek gorputza astintzeko. 19:00etan, Eguzkilaruri agurra egingo zaio.

SOKASALTOKA EUSKARAZ

Olatuen Zaratekin

Olatuen zaratekin
Pozik nabil saltoka
Orain behera,
Orain gora
Irtzen zaitez kanpora!

Saltoka-Saltoka

Saltoka, saltoka
Nabil ni gustora
Salto eta salto
Bat sartu arte.
Sartu dadila (...)
Ta biok elkarrekin
Ibili gaitezen bat irteten arte!
Eman zazu buelta irtetzeko!

Neska zaharrak

Neska zaharrak joaten dira
Madalenara, Madalenara, Madalenara!
Santuari eskatzera senar on bana
Senar on bana komeni bada!
Santuak esaten die buruakin ez
Buruakin ez, buruakin ez!
Zergatikan lehenagotan akordatu bez
Akordatu bez
Orain bat ere ez!



Jovi

10.000 koloretako menua aukeran

Zoru arinak. Saipolan. Ceflex.

Neurriko felpudoak. Pertsiana biribilkagarriak. Ehunezko hormatakoak. Kortxoak. Moketa losetan.

Erretxina autonibelatzailea duten lurzoruak.

Pintura ekologikoak

Ferrerias, 35 ARRASATE Tel.: 943 79 12 87

Arrasate Musikaleko Banda: eseri eta gozatu


Musikaz gozatzeko aukera ugari izango dugu Sanjoanetan. Gorputza astintzeko moduko doinuak entzungo dira, baina baita lasai-lasai eseri eta entzutekoak ere.

Eta hor, Arrasate Musikaleko Bandak du protagonismo osoa. Jaietan, hiru konpromiso izaten dituzte: Haurren Danborrada, Errementari Dantza eta San Joan eguerdian Monterron Parkean ematen duten kontzertua. Lagun asko erakartzen ditu beti kontzertu horrek.

TRADIZIO HANDIA

Eta ez da harritzekoa, bandak tradizio handia duelako Arrasaten. Herriko banda desagertu zenean, ohitura hori berreskuratu nahi izan zuten Arrasate Musikaleko Jose Ramon Vitoria irakasleak eta Juan Arzamendik, lehenengo zuzendariak; orain 4 urtetik, bere seme Eduardok darama batuta.

Gaztea da, beraz, banda hau, bai sortze urteagatik, bai bere partaideen adinarengatik ere: jende gaztea da, Arrasate Musikaleko ikasleak edo ikasle ohiak. Irakasleek ere



Arrasateko bandak 13:00etan kontzertua eskeiniko du Monterronen.

parte hartzen dute, borondatez. 40 lagun inguru dira, eta banda normal batean jotzen diren tresna gehienak jotzen dituzte, tuba izan ezik.

GAITEROEKIN

Eduardo Arzamendik aukeratzen ditu kontzertuetako piezak: "Pasodoblea eta zarzue-

la asko gustatzen zaizkie mondragoetarrei, baina estilo modernoei ere tartea egiten saiatzen naiz", dio zuzendaria.

Arrasate Musikaleko Bandaren beste ezaugarri bat zera da, sarritan bakarlariekin jotzea dutela gustuko. Aurten, Arrasateko Gaiteroak izango

dituzte lagun, hiru pieza joko baitituzte: "Aupa Katxo", "Vals-Polka n°9" eta "Vals con Variaciones".

Horrez gain, Gotzon Aulestia Donostiako Kontserbatorioko katedradunak idatzitako pasodoble bat estreinatuko dute, "Luis Oloriz" izenekoa.

J. Markiegi.

Gizonezkoen moda

Olarte, 2
Tel.: 943 79 15 32

JAI ZORIONTSUAK



A R R A S A T E

Mondragoeko bertsolari gazteen estreinaldia

San Joan Jaien egitarauaren barruan, bertsolaritzak tarte polita hartuko du. Aurten, gainera, berritasun eta guzti. Has-teko, bi egun izango dira bertsoez gozatzeko: zapatua eta domeka; batean, bertso txikiteoa izango da, Oihane Enbeita eta Beñat Gaztelurrutia bertsolariak girotuta. Arratsaldeko 19:30ean txosnen gunetik irten eta Alde Zaharreko kale-etarantz joko dute trikitilari eskolakoekin batera. Bueltatxo bat eman ondoren, Dragoi Janean parte hartuko dute bertso saio batekin.

Bigarren egunean, domekan, mondagoetarren txanda izango da. Aurreneko aldiz, bertso eskolako gazteak kale-ira irtingo dira bertsoak botatzera, Asier Iriondoren gidaritzapean. "Arrasatearrak eta bergararrak borrokan" izene-



Asier Iriondo da bertso eskolako oraingo irakaslea.

ko bertso-trama edo antzez-kizuna eskainiz izango dute estreinaldia. Nerea Uri, Nerea Gorosabel, Ane Zabala, Jokin Labaien, Idoia Elortza eta Enaitz Elortza dira protagonistak.


BERTSO ESKOLA

Almenen bertso eskola sortu zenean, AED elkartearen pareko bat sortu zuen Patxi Goikoleak. Duela hiru urte eskola indartu nahian Ainhoa Agirreazaldegia etorri zen irakasle laneta-

rako. Halaxe adierazi digu Itxaro Artolak, AEDko teknikariak. "Harrezkero, astero biltzen dira bertso eskolako gazteak; badi-rudi, bai, errotzen doala". Horren adibide da bi urteko eteenaren ondoren, datorren irail-ean eskolan sartzeko deialdia egingo dela seguruenik. "Azken bi urteotan ez da deialdirik egin eskolan zegoen taldea sendotzeko. Orain, deialdi berriarekin, bi maila ezarriko ditugu bertso eskolan: bata jende berriarekin eta bestea oraingoarekin".

Bertso eskolako gazteen emaitzak ere ez dira batere txarrak. Gipuzkoako XX. Eskolarteko Bertsolari Txapelketan, Jokin txapela eskuratze-ko puntu baten faltan geratu zen. Idatzizko proban, berri-za, epaimahaiaren aipamen berezia irabazi zuen.

FIAT PUNTO BERRIA EURO NCAP SEGURTASUN TESTEAN EUROPAKO LEHENA.



**4 IZAR; EURO NCAP SEGURTASUN
TESTEAN PUNTAZIORIK GORENA
LORTU DU.**

Fiat Punto Berriaren sailean ez dago European bera baino auto seguruagorik. Punto Berriak 150-etik gora crash test jasan ditu autoak eta beste 500 crash testik gora bere osagaiek, Euro Ncap-en puntuaziorik gorena lortuz.



ESPAÑIAN 2000.EKO AUTORIK ONENA



=KANPAZAR FIAT

Tailerra: Bizkaia etorbidea, z/g • Tel.: 943 79 41 98 • Erakusketa: Araba etorbidea, 32 • Tel.: 943 79 77 66 • ARRASATE

Denetariko musika mota izango dugu aukeran San Joanetan; festetako dantzaldiez gain, kontzertuak ere nahikoa izango dira aukeran. Txosnak, Monterron eta Gaztetxea agertoki moduan erabiltzaile, 9 musika talde pasatuko dira Mondragoetik. Hauetatik lau, herrikoak: *Kañeria 13, Ekon, Versus eta Gaztelu Konbo.*

Musika, musika eta musika!!!

egubakoitza (23)

NUEVO CATECISMO CATOLICO (Gaztetxean)
La Perrera taldearen ondorengoa da *Nuevo Catecismo Catolico*. 1992. urtean sortua, bost disko plazaratu ditu Donostia-ko talde honek. Estatu espainiarreko punk rockaren ezinbesteko erreferentzia bilakatu da *NCC*, jarraitzaile nahikotxo batuz. Gaztelania dute hizkuntza nagusi, hala ere, ingelesez ere abesten dute.

VINCENT VON REVERB Y SUS VAQUEROS ELECTRICOS (Gaztetxean)
 Valentziatik datorren talde honek 90eko hamarkadaren erdialdean ekin zion ibilbideari. Estilo bereziak egiten du bitxia talde hau. Rock-and-rolla da egiten duen musika, baina, glamourrez jantzita taularitzen du, ikusleak txundituz. Gaztelaniaz abesten dute eta dagoeneko kaleratu dituzte hainbat disko. Sanjoanetan egin duten lan berria ikusi ahal izango dugu Gaztetxean.

GAZTELU KONBO (Txosnagunean)
 Hauxe izango da Sanjoanetako estreinaldirik berriena. Gazteluondotik datozen 8-9 lagun elkartu dira, danborrak hartu eta txosnagunea dantzan jartzeko asmoz. Erritmo afrikarrak, arabiarrek eta hegoamerikarrak ekarriko dituzte horretarako. Txirula eta ahotsak tartekatuz, giro etnikoa ematea nahi diote egubakoitzeko gauari. Aprobetxatu behar, bada, agian ez baititugu guztiak berriro batera ikusiko!

zapatua (24)

KAÑERIA 13 (Monterron parkean)
 Gero eta gehiagotan hizpide dugun talde garagartzarra da hauxe. Punk estilok uztartuz, amorrua ematen dieten gaiak lantzea dute gustuko. Euskara zein gaztelania erabiltzen dute horretarako. Hauetako egunen batean kalean ikusi ahal izango dugu aurreneko lantzoa: zazpi abes-



egizabal

Oinetakoak eta poltsak

Ondo pasa jaietan!!

Olarte, 14 • ARRASATE • 943 79 66 01
 Bidekurutzeta, 13 • BERGARA • 943 76 12 28

tiz osatutako maketa.

Mondragoen entzule finak izatea lortu arren, jende berria erakartzea da euren erronka. Ea Sanjoanetan lortzen duten!

ERASO!

(Monterron parkean)

"Erantzunik gabe" izeneko lana plazaratu berri du Zarauzko talde honek, bere aurreneko diskoa. Erritmo astunak eta letra gogorak erabiliz, energiaz beteriko musika da eskaintzen duten emaitza. 1996. urtean hasi ziren musikan aurreneko pausok ematen; tendentzia berriak landuz apurka-apurka kalean barneratzen.



dezakegu, izan ere, denbora asko anonimatuan eman ondoren, orain hasi da jendea talde hau aintzat hartzen. Aukera ezin hobe, beraz, zer egiten duten ikusteko eta gozatzeko.

VERSUS

(Txosnagunean)

Mondragoen *Abaddom* moduan ezagutzen genuen taldeak *Versus* izena hartu berri du, hiru pertsona izatetik, zazpi izatera pasatzeak izen aldaketa ekarri baitio taldeari. Izena bai, estiloa, baina, ez dute aldatu. Are gehiago, ez du estilo zehatzik, musika mota guztiak lantzea gustatzen baitzaio herriko talde honi: reggaetik hasita, rocketik pasatuz, Erdi Aroko estiloak ere landuz. Bidea egiten ari dira; oraindik, lau bider besterik ez dute guztiek batera jo; beraz, oraindik primizia dela esan daiteke.

reggaetik hasita, rocketik pasatuz, Erdi Aroko estiloak ere landuz. Bidea egiten ari dira; oraindik, lau bider besterik ez dute guztiek batera jo; beraz, oraindik primizia dela esan daiteke.

ko arazo eta egoerak erabiltzen dituzte euren kantuetarako. Disko bat kaleratu dute aurtten, dantzarako paregabea.

EKON

(Monterron parkean)

Etxeko musika talde honen zuzeneko ikusgarriaz dantza egingo du batek baino gehiagok Monterronen. Trash, metal eta rap erritmoekin malabarismoak eginaz, rock euskaldunaren taldeen artean, toki berezia lortu du *Ekonek* lanean diharduen sei urte hauetan. Bigarren diskoa plazaratu berri du, "Etnia 2000"; indarra dario, eta horixe da Sanjoanetan ikusi ahal izango duguna, Ines eta Naiararen ahotsek leunduta.



THE HOT DOGS!


(Monterron parkean)

Izen ingelesa izan arren, Urretxutik dator rock-and-rolla lantzen duen talde hau. "Powerhouse" da egin duten bigarren lanaren izena, guk entzun ahal izango duguna. Oraindik bidea egiten ari dela esan

SELEKTAH KOLEKTIBOA

(Monterron parkean)

Reggae, hip-hop, funk eta antzeko erritmoak landuz, Euskal Herrian gehiegi zabaldu barik dagoen merkatu horretan sartzeko lanean ari da talde hau. Euskaraz zein gaztelaniaz abestuz, Euskal Herri-




LASA

Jatetxea

OZAETA JAUREGIA
Tel.: 76 10 55 Faxa: 943 76 20 29
BERGARA

Jai zoriontsuak pasau!



ILE APAINDEGIA

King's

Zorionak denoi!

ARRASATE

• **KING'S ile apaindegia:**

Zarugalde 23, behea. Tel.: 943 79 84 88 • ARRASATE

• **DIEGO VALOR, mistoa eta estetikoa:**

Zubieta 38, behea Tel.: 943 76 37 70 • BERGARAN

• **DIEGO VALOR, gizonezkoak:**

San Lorentzo 2, behea Tel.: 943 76 58 08 • BERGARAN



EROSKI

ARRASATE

*San Joan zoriontsuak
opa dizkizuegu*

Tel.: 943 79 41 00

IKASTARO TRINKOAK

ETA ERREKUPERAZIO-IKASTAROAK

UDA HONETARAKO

MULTIMEDIA-SISTEMA

- 9.00etatik 21.00etara etengabeko ordutegia
- Mintzapraktikako eskolekin
- Ikasteko ordu-mugarik gabe
- 18 urtetik gorakoentzat

*ingelesa,
frantsesa eta
alemana*

2 ORDUKO IKASTARO TRINKOAK TALDEETAN

- Goiz eta arratsaldeko ordutegia
- Haurrak, gazteak eta helduak



bai & by



Arrasate-Mondragon Avda. Alava, 4 • Tel.: 943 712055
Donostia-San Sebastian Zubieta, 26 • Tel.: 943 433102

Oñati Olakua, 14 • Tel.: 943 716000
Vitoria-Gasteiz Florida, 8A • Tel.: 945 150155

<http://agila.opel.es> 902 11 99 00



ja, ja



aja!

opel agila berria hasieran ja ja, gero aja!

Hasiera baten, Agila berriak berezi samarra eman lezake, baina hiriko auto adimendun baten aurrean gaude. Auto txikia da, baina kanpotik; izan ere, Agila berriaren barrua zabala da oso, edozertarako tokia dauka. Atzeko eserleku benetan erosoak lurraren mailan tolesta daitezke, eta 1.250 litroko tokia egin. Baina, horretaz gain, jarlekuen alturak primerako ikuspen eta maniobralitatea eskaintzen dute. Zenbat eta hobeto ezagutu Agila berria, orduan eta gehiago errepikatuko duzu "aja!". Zatoz zeure kontzesionariora eta deskubritu.

OPEL

TALLERES OLA

Olabarrena auzoa z/g. Tel.: 943 76 33 44 / 45 / 46 / 47. BERGARA
Zerbitzu ofiziala ARRASATEn • Araba etorbidea 3 (Eskatu pabilioia). Tel.: 943 79 05 86

TAKOLO AUTOAK, S.L.

ALDIBI AUTOAK, S.A.

ZIGARROLA KALEA, 1 - TEL. 943 71 20 02 - 20500 ARRASATE-MONDRAGON



LEGE SIKUA HASTEN DA

NISSAN *Almera* BERRIA 2.2 Di 16 v / 110 cv-ko MOTORRA. 1000 Km BAINO GEHIAGO DEPOSITUA BETE GABE.

Nissan-en, gutxi lortu dutena lortu dugu: berrikuntzan eta teknologian urrutira heltzea bere mailako motor lehiakor eta berritzailearekin. Injekzio zuzeneko turbodiesel motor berri bat, 110 cv-ko 16 balbula eta 230 mkg-tik 2000 rpm-ainoko motor pareta. Bere klaseko altuena. Askok horrelako motor batekin non geldituko garen galdetuko duzue. Bada, zehatzak izateko, 1.053 kilometrotan, ze azken belaunaldiko motor indartsu bat izateaz gain, Nissan Almera berriak berdindu ezin den autonomia duelako.

Nissan Almera berria oso-oso urrutira eraman dugu, zu atzean ez gelditzeko.

IBILBIDEAZ GOZATU.



5

**URTEKO
BERMEA**
KM MUGARIK GABE

MOTOR 1.5
COMFORT 3 ate
1.935.000PTA*

MOTOR 1.8
COMFORT 5 ate
2.360.000PTA*

MOTOR 2.2 Di
COMFORT 3 ate
2.320.000PTA*

MOTOR 2.2 Di
COMFORT 5 ate
2.365.000PTA*

GIDATU ETA GOZATU

Jan eta jan San Joanetan, arraina eta dragoia

Euskal Herriko sukaldaritzan, arraina erregetako bat da, eta "errege" hori omentzeko paradirik ez da falta izango San Joan hauetan. Lehen aukera joan den zapatuan izan genuen. Eguraldi bikainaren berora eta jaki bikainagoen usain goxora, jende ugari agertu zen Seber Altube plazara, San Joanetako Elkarteen Arteko Bakailao Lehiaketaren gorabeherak jarraituz. 11 elkarrek hartu zuten parte eta lehia gogorra izan zen euren artean. Azkenean, lehen saria eta txapela, Leintze Ehiza eta Arrantza Elkarereantzat; bigarrena, Santamañarentzat, eta hirugarrena, aldiz, Bidegain Elkarereantzat izan zen.

Epaileak Xabier Zubizarreta alkatea, Begoña Aldabe sukaldaria eta Angel Viana aditua izan ziren.



Zapatuan izango dira herri bazkaria eta dragoi jana.

HERRI-BAZKARIA

Zapatuan bakailaoa, eta datozen astelehenean, atun martitakoa, hori izango baita herri-bazkariko plater nagusia.

14:30ean izango da hitzordua, Uarkapen, SUDCen esku-

tik. Eta bakailao lehiaketan herriko sukaldariak aritu baziren, oraingoan Ondarruko arrantzaleen esku trebe askoek prestatuko dute jaki atsegingarri hau. Dastatu nahi baduzue, Monte, Kimetz eta

Uarkapeko tabernetan izango dituzue eskuragai txartelak, 1.000 pezetan. Bazkalostea egiteko, musika emanaldia eta, ondoren, pilota partidak izango dira.

DRAGOI JANA

Aurten ere AEDko kideak dragoia ehizatzen irtengo dira Santa Barbara. Handik jaitsiko dituzte 500 txuleta. Hori da, behintzat, AEDkoek esan digutena. Badirudi horrela irakurrita dragoia zain izango dutela Santa Barbara gainean. Tira, txuletak herriko plazan, behintzat, afalordurako egongo dira. Eta ez hori bakarrik, izan ere, taberna ere jarriko dute, txuleta jana arintzeko. Giroa jartzen txalaparta, bertsolariak, Goikobalu abesbatza, trikitixa eskolako kideak eta Gozategi izango dira.



Bea

Barrutik janztearen plazerra

zabaldu berria!

Otalora Lizentziatua, 21 • Tel.: 943 79 12 05



Txuri-Beltz

Iturriotz, 33

ARRASATE - MONDRAGON

AKELARRE

- Etxean egindako turroiak
- Polboroiak
- Mazapanak
- Girlatxea
- Trufak
- Gabonetako tartak

Zarugalde, 54 • Tel.: 943 77 00 71

Aspaldiko partez, fanfareak kalez kale

Hamahiru urteko etenaldiaren ondoren, fanfareak berriro ere Mondragoera datoz Sanjoanetan. SUDC elkartearen eskutik, ehundik gora musikari kalez kale ibiliko dira domekan, goizean hasi eta iluntzera arte.

Sei txaranga datoz guztira: Samasiku (Santutxu), Turrutarrak (Zornotza), Dumbots (Bilbo), JB (Bilbo), Zorak (Bilbo) eta Biznietos de Celedon (Gasteiz). Eskualdeko Ospitalearen inguruan elkartuko dira goizeko 10:30ean eta, ondoren, herrian sartuko dira, kalejiran. Biteri, Garibai, Otalora, Arbola-peta eta Iturriotz kaleetan ibili ondoren, eguerdi aldean txaranga bakoitzak saio txo bat eskainiko du Herriko Plazan. Bukatu eta kalerik kale segituko dute, herriko koadrillek



Ehundik gora lagunek hartuko dute parte txarangetan.

lagunduta, oraingo honetan. Ondoren, atsedenditxo bat izango dute, Uarkape Udal Pilotalekuan bazkaltzeko, eta arratsaldeko 18:00etan aterako dira berriro, iluntzeko 20:00ak arte.

JAI GIROA BULTZATUZ

Bosgarren aldiz datoz fanfareak gure herrira. 1983. urtea izan zen lehenengoa. SUDCen esanetan, "Mondragoen beti izan da musikarekiko zaletasun handia eta horrexegatik


pentsatu genuen polita izango litzatekeela fanfareak ekartzeari; gainera, kalean sekulako giroa ipintzen dute.

Aurreneko aldiz ekarri genituenean, goizeko lehen ordurako jendea leihotara atera zen txaranga pasatzen ikustera. Bereziki, nagusitzen doan jendeari gustatzen zaizkio, baina aurten, herriko koadrilla batzuk ere ibiliko dira txarangekin batera; beraz, ea jendea animatu eta kalera ateratzen den!"

Hortxe dago, beraz, deialdia, hortxe aukera, osasunak lagunduz gero, badakizue, denok kalera!

GAUEAN MONTERRONEN

Monterronen amaituko da fanfareen ikuskizuna. "Tirri Tarra Show" eskainiko dute Tirri Tarra fanfarekoek.



PAPER DENDA J. URIARTE

10 urteotan emandako konfiantza eskertu nahi diogu Arrasateko herriari.
Jai zoriontsuak opa dizkizuegu.

Gora Arrasate!

Ferrerias kalea, 32 • Tel.: 943 77 03 80 • 20500 ARRASATE



**Ingurune zoragarrian,
lagun artean
ondo pasatzeko aukera**

Araotz auzoa, 2 • OÑATI
Tel.: 943 78 35 26




ARAOTZAZU
OÑATI

LASER DEPILAZIOA

- Behin betikoa, azkarra, ez du minik egiten
- Depilazio sistemak, zerbitzu medikuaren bermearekin
- Aholkularitza eta aurrekontuak

Itaca Zentro Mediku eta Estetikoa


Juan Carlos de Andres Guerra dk.
General Alava 7. GASTEIZ. Tel.: 945 13 92 56 RPS. 492/98



Izozkitegia

Gozotegia
Italiar izozkitegia
Kafetegia

Iturriotz, 7 • Tel.: 943 79 81 68 • ARRASATE



ostantz1@ostantz-arrasate



ostantz2@ostantz-arrasate



ostantz3@ostantz-arrasate




ostantz4@ostantz-arrasate



bete betean bizi San Juanak!!

www.ostantz-arrasate.com

(bukatzeke)



*Uda honetan,
zure gorputza
freskatu eta alaitu*

Lore

Loren, behar duzun informazio guztia emango dizugu.

Olarte, 10 • ARRASATE • Tel.: 943 79 52 50

*Uda honetan,
eguzkia hartu
eta gozatu*



“Tirri Tarra Show” ikuskizuna Monterronen

Tirri Tarra fanfarearen ikuskizuna da “Tirri Tarra Show”. Baina, ez ikuskizuna ez eta fanfareare ere, ez dira ohikoak.

Pasai San Pedroko talde honek 25 urte bete zituen iaz eta 1997tik ari dira “Tirri Tarra Show” ikuskizuna jendeari erakusten. 5-6 esketxez osatuta dago lana eta horietako bat da argazkian erakusten dutena: “Priscila”. Ezaguna egingo zaizue agian “Priscila basamortuan” film ezaguna. Bada, horixe da Tirri Tarrakoek gogora ekartzen dutena euren ikuskizuneko azkenengo zatian. Gainera, Joserra Isasik, taldeko kideetako batek, aitortu digunez, “egia da jendeak gure ikuskizun hau azkenengo esketxagatik eza gutzen duela. Agian, gure lanen artean ezberdina da eta lehenengo urtean arrakasta handia izan ez bazuen ere, hasi ginenetik hona 200 aldiz egin dugu. Gainera, “Tirri-Tarra Show” 1997an hasi ginen egiten, baina “Priscila”k ordurako urtebete zuen”.

LAN ETA LAN

Hogeitabost lagunek osatzen dute jende aurreko Tirri Tarra



“Priscila” lana ere eskaintzen dute Tirri Tarrakoek “Tirri Tarra Show” ikuskizunean.

fanfareare, baina “guztira 30 lagun gara. Izan ere, bost kide ari dira gure ikuskizuna aurrera eramateko muntaia lanean: argiak, dekoratuak eta bestelakoak”, dio Joserrak.

Mende laurdena ospatzeko “Re + Fa” diskoa kale-ratu zuten pasaitarrek. Ostegunean, berriz, “Re + Fa zuzenean” ikuskizuna estrei-

natuko dute. Sergio Zurutzak konposatutako beste kantu berri bat gehitu diote 1999an ateratako diskoari eta horrekin guztiarekin aurkeztu zuten euren herrian ikuskizun berria. Hori, ostegunean izan zen, baina larunbatean, San Joan Egunean, Arrasaten izango ditugu Tirri Tarrakoak.

KANPOAN ERE BAI

“Priscila”n agertzen diren drag queenak ezagunak egin dira Euskal Herrian, baina Tirri Tarrakoak, mugak gaindituz, Ingalaterrara joango dira udan eta baita Kataluniara ere.

Dena dela, zapatuan, 23:00etan, Monterronen ikusiko ditugu pasaitarrak.

Estella ortopedia

Javier Estella, ortopedia teknikari tituluduna
OSAKIDETZAREKIN ETA LAGUN AROREKIN HITZARTUA
Matxiategi 5 • Tel.: 943 76 19 63 • BERGARA

RPS 421/97

Etixerako laguntza teknikoa

Ondo pasa dezazuela denok!

Kirol Ortopedia

Mastektomiak

Neurrira eginiko plantillak. Oinetakoak



Xake partida azkarrak, Seber Altuben

Ohi bezala, aurten ere Xake Txapelketa jokatu da San Joan jaietan. San Andres Xake Taldearen eskutik, Seber Altuben inguruetako xake talde-rik onenak elkartuko dira.

PROBINTZIAKO TALDE BANA

Bilbo, Gasteiz eta Donostia-ko laukoteak izango ditugu Arrasaten. Eta guztien aurka jokatu dute San Andres Xake Taldekoek.

Bilboko "Rey Ardie", Gasteizko "Ruta de Europa" eta Donostiako "Gros" taldekoek hartuko dute parte.

Bilbotarrak Euskal Liga-ko txapeldun izan dira behin baino gehiagotan, gasteiztar-rrak Arabako talderik onena dira eta Euskal Ligan hirugar-rren sailkatu ziren.

Donostiarra, berriz, Gipuz-koako talderik onena da eta Gipuzkoako txapelduna ere, Iñigo Argandaria, taldean ari da.

San Andres Xake Taldea Josu Tornayk, Txema Hernandok, Isidro Ruizek eta Martin Arriaranek osatuko dute eta ez dute ez, txapelketa erraza izango.



Ubilava eta Josu Tornay, Bergarako Nazioarteko Xake Txapelketan.

PARTIDA AZKARRAK

Laugarren aldiz jokatu da San Joanetako partida azkarren txapelketa. Izan ere, partida bost minutukoak izango dira eta jokalariek guztiek elkarren aurka jokatu dute. Scheveningen sistema esaten zaio suitzar joko sistema horri eta Euskal Herrian jokatzeko den horrela-ko txapelketa bakarra da. Jokalari bakoitzak, beraz, zortzi partida jokatu ditu. Txapelketa larunbatean izango da Seber Altube plazan, baina hasieran baino ordutebe lehenago: 16:00etan.

BERGARAN BIKAIN

Begarako Nazioarteko Xake Txapelketan ere aritu ziren San Andres Xake Taldekoak. Hori, Bergarako Bazko jaietan izan zen. Arrasateko talde-rik bost kidek jokatu zuten eta ondo aritu ziren gainera. Euretako bik saria ere irabazi zuten.

Josu Tornay 12. tokian gelditu zen, lortu zitezkeen 7 puntuetatik 4,5 eskuratu eta gero. Berak euskal jokalariek onenaren saria irabazi zuen. Ubilava errusiarraren aurka amore eman behar izan zuen

Tornayk. Ubilava, Anamen eta beste hainbat xake jokalariren entrenatzailea da, bera ere maisu handia da eta. Horregatik, lehenengoa izan zen Bergarako Nazioarteko Xake txapelketan. Bigarren sailkatua argentinar bat izan zen: Diego Atla maisu handia eta hirugarren, berriz, Roberto Cifuentes txiletarra.

Isidro Ruiz, bestalde, 13. izan zen eta bera Gipuzkoako xake jokalariek onenaren sariarekin etorri zen etxera. Ruizek Felix Izeta Euskal Herriko xake jokalariek handiaren aurka galdu egin zuten.

Eurekin batera, Mikel Hernando (34. izan zen), bere anaia, Txema (21.) eta Jabier Aspe (22.) ere egon ziren.

**Xake Txapelketa
San Joan egunean
hasiko da,
16:00etan,
Seber Altuben**

Year
oinetakoak

Biteri, 13 • Tel.: 943 79 21 71 • ARRASATE
Barrenkale, 9 • Tel.: 943 76 22 86 • BERGARA

**LIBURU ETA PAPERDENDA
BIDAIETARAKO ETA
LARRUZKO ARTIKULUAK**

Iturriotz, 4 • ARRASATE
Tel. / Faxe: 943 - 79 14 84

Retegi II.ak Uarkape aukeratu du, berragertzeko

San Joan egunean jokatu da oraingoz hitzartuta dagoen profesionalen arteko azken pilota jaialdia, Uarkape Udal Pilotalekuan. Eta sekulako jaialdia antolatu dute gainera. Honezkerok jakingo duzuen bezala, Julian Retegik Uarkapeko pilotalekua aukeratu du bere berragertenerako. Arrasateko udal ordezkarien aspaldiko gogoak zen Retegi II.a Uarkapera ekartzea, baina min hartuta egonenez, itxaron egin behar izan dute. Kontuak kontu, lortu egin dute eta zapatuan Zearrarekin batera jokatu du Erasungoak. Urtebete eta bederatzihilabete egin ditu Retegik jokatu barik; Irungo eta Arrasateko aukeren artean, Arrasatekoa aukeratzea erabaki du.



Euskaldunon Egunkaria

Julian Retegik Zearrarekin jokatu du Tirapu eta Errastiren aurka.

Aurkariak ere ez dira makalak izango, Tirapu eta Errastiren aurka jokatu dutelako Zearrak eta Retegik.

Pilota jaialdia arratsaldeko 18:00etan hasiko da.

Baina, eskuz binako estelarrak gain, bigarren mailako pilota partida ere jokatu da. Estelarraren aurretik Mingez eta Barriola arituko dira Beloki II.a eta Taberna-

ren aurka.

SARRERAK SALGAI

3.500 pezeta kostako da sarre-
ra bakoitza. Eta aurretik eros-
teko asmotan bazabiltzate,
jakin erreserbak ostiral goizera
arte baino ezingo direla egin
656 79 94 23 zenbakian. Bes-
tela, Uarkapeko saltokia osti-
ralean egongo da zabalik

19:00etatik 20:00etara eta
larunbatean arratsaldeko
16:30etik aurrera.

HERRIKO PILOTARIAK

San Joan saria ostegunean,
hilaren 29an, jokatu du Uar-
kapeko pilotalekuan. Oraindik
alebinetako finala baino ez
dago erabakita: batetik, Era-
ña II.a eta Bolinaga eta, bes-

tetik, Fernandez eta Arregi.
Izan ere, beste mailetan fina-
lerdiak falta dira. Hala ere,
asteburu honetan Makatzena-
ko txapelketa jokatu da.
Ostiralean, 17:30etik aurrera,
benjaminetako bost partida
jokatu dira eskuz binako eta
larunbatean, 11:00etan, baina
alebinetan, beste hiru; hauek
ere, eskuz binako.

ARRABALA

Ondo pasau
San Joanak

Maalako Errabala, 27-29
Tel.: 943 79 23 40
ARRASATE

Alai

Gozoki denda
Aldizkariak

Otalora Lizentziatua, 2
Tel.: 943 79 69 34

MENDIZABAL

okindegia

Seber Altube, 2 • Tel.: 943 79 89 60
ARRASATE

Edertu

Ile apaindegia • Solariuma

Eskaintza berezia:
solariumeko 10 saio 6.500 pta.

San Andres auzoa • Tel.: 943 79 04 28
ARRASATE

Goitb

Goiena Telebista

egunez egun

OSTIRALA, 23

- 13:30 Albiste Aurrerapena.
- 13:45 Gatza eta berakatzza.
- 14:00 Bideo bilduma San Joanak 99.
- 20:00 Berriak.
- 20:30 Berriak.
- 21:00 Berriak.
- 21:30 Astebete.
- 22:00 Salbea.

LARUNBATA, 24

- 13:30 Bideo bilduma San Joanak 99.
- 14:30 Salbe Solemnea.
- 20:00 Salbea.
- 21:00 San Joanak magazina -1-
- 22:00 Arrasate Musikaleko Bandaren emanaldia Monterronen.

IGANDEA, 25

- 13:30 Bideo bilduma San Joanak 99.
- 14:00 San Joanak magazina -1-
- 15:00 Entzierroa eta zezentxoak zezen plazan.
- 20:00 Arrasate Musikaleko Bandaren emanaldia Monterronen.



Arrasateko banda.

- 21:00 San Joanak magazina -2-
- 22:00 Rock Kontzertua Monterronen.

ASTELEHENA, 26

- 13:30 Albiste Aurrerapena.
- 13:35 San Joanak magazina -2-
- 14:35 Entzierroa eta zezentxoak zezen plazan.



Bigantxak.

- 20:00 - 20:30 - 21:00 Berriak.
- 21:30 Tirri-Tarra Show Monterronen.-

... LILURAK ...

OIHALAK


San Joanetan ondo-ondo pasatu

Zerkaosteta, 5 - Behea • ARRASATE • Tel.: 943 79 89 72



Offset inprimatze digitala.
Kolore lauak, inprimatze zuzena disketetik paperera

Arrasate pasealekua, 2 • Tel.: 943 77 06 11 • Faxa: 943 77 09 86



AUTO KONPONKETAK

Ondo pasau San Joanak

Autoen konponketa orokorra

Araba etorbidea, 3 • Tel.: 943 79 27 16

MURU

MOTOR SALMENTA ETA KONPONKETA

Uztaileko eskaintza:
matrikulazio
gastuak dohainik



Sanjoanak 2000

Larunbat eta igandean 21:00



Arrasate Telebistak plato berezia antolatu izan zuen urtero-urtero, hamar urtez, Seber Altube plazan, Sanjoanak ospatzeko.

Goiena Telebistak beste molde bat aukeratu du Arrasateko jaien berri emateko: larunbatean, eta igandean, saio berezia egingo du.

Aurkezleak Unai Iparragirre mondra-goetarra eta Iratxe Eguen, Arrasaten lan egiten duen elorriarra izango dira.

Laguntzaileak izango dituzte errepor-tari lanetarako: etxeoandre, antzerki ikasle, tabernari eta irrati esatari bana, eskar-

menturik ez, baina ausardia eta freskota-suna ugari dutenak.

Sanjoanetako ekitaldi nagusiez eta kale galdeketez gain larunbatean, Behi Bi's txo-txongilo taldeak Arrasateko dragoiaren istorioa antzetzuko du eta igandean, Eriz mago donostiarraren txanda izango da.

Bi gonbidatu izango dituzte Unaik eta Iratxek: soinujole bat, udaltzain bat, zinegotzi bat eta makala jasoko duen gazte bat. Hauekin eta telefonoz deitzen duten ikusleekin, lehiaketa bat antolatuko da, Lora-mendi Kirolak etxeak babestua.

Arrasate Irratia ere sanjoanetan

Sanjoanak direla eta, irratsaio bereziak eskainiko ditu Arrasate Irratiak. Ekainaren 24an, 25ean eta 26an, hiru orduko irratsaioak egingo ditu. Goizeko 11:00etan hasi eta 14:00ak arte, zuzenean arituko dira. Arrasatean, berriz, errepikatu egingo dira goizeko saioak, 15:00etan hasita.

Zazpi bat lagun arituko dira sanjoanetako programa egiten: esatari biak, Aitziber eta Alazne, irratian bertan izango dira, saioa zuzentzen; teknikari bi izango dituzte laguntzeko; kalean, ostera, bizpahiru lagun, sake-lako telefonoekin, kaleko giroa irratiratzeko gertu.

"Gure asmoa da kalera irten ezin dutenei jaigiroa eramatea, eurek ere irratiaren bidez sanjoan bizi ditzaten", dio Aitziber Aranburuzabalak.

Orain urte batzuk, sakelako telefonoak hain zabalduak ez zaudenean, kalera irteten ziren irratikoak, orduan walkie-talkieak erabiliz. Alde ederra!

Entzuleek, gainera, parte hartu ahal izango dute Lora-mendi Kirolak etxeak babesten duen lehiaketa batean. Ondo pasau eta zorte on!



ERAIKUNTZAK ETA INDUSKETAK

Basabe Industrialdea 4, EQ-11 • ARETXABALETA

Tel/fax. 943 79 01 51 • Mugikorra (908) 77 28 67 • Partikularra 943 79 74 26

Etxebizitzak salgai Antzuolan

90m² erabilgarriak

20.000.000 PTA

Lehen mailako materialekin egina. Leku ezin hobea.

Informazioa eta salmenta: **KOROSTI INMOBILIARIA.**

Tel.: 943 73 05 25

Urdarte
SPORT

*Ondo pasau
San Joan
jaizak!*

Olarte, 6 • Tel.: 943 79 27 78 • ARRASATE



- Larruzko osagarriak
- Bitxiak
- Opariak
- Kosmetikoak
- Solarium-a

Kanpantorpea, 4 - behea
Tel.: 943 79 15 19
ARRASATE

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Hiru logela, egongela, soto handia eta berogailua duen etxe berriztua salgai. Tel.: 943 79 57 88 (20:00etatik aurrera).

2. Erosi

• Pisua erosiko nuke San Andres aldean. Igogailua, hiru logela, berogailua eta berriztua izan behar du. Ahal bada, bi bainugelarekin. Tel.: 943 77 16 45 (goizez edo 22:30etik aurrera).

3. Errentan emateko

• Zarautzen logelak alokagai. Etxebizitza lasaia, eguzkitsua eta erdialdean kokatuta dagoena. Tel.: 630 71 35 83.

• Bi logela eta egongela-jantokia duen apartamentua alokatzen da Torrevejan, urte osoan zehar, hondartzatik 100 metrora. Tel.: 943 77 03 85.

• Sancho el Sabion, Donostian, ikasleentzako etxea alokagai. Tel.: 943 21 65 63.

• Ikasleentzako pisua alokatzen da San Andresen. Tel.: 943 79 22 19 (22:00etatik aurrera).

• Pisua alokatzen da San Andresen. Tel.: 943 79 28 63.

• Apartamentua alokagai Nojan. Bi logela eta hondartzatik gertu. Ekainean eta uztaillean, 15 egunez edo hilabetez. Tel.: 943 17 60 10.

• Sei laguntzat apartamentua alokagai Torrevejan, ekainean eta uztaillean, 15 egunez edo hilabetez. Tel.: 943 17 60 10.

• Hiru logelatako etxebizitza alokagai, San Andresen. Tel.: 943 79 13 54.

• Uztaillean, Donostian, 3 logela, 6 ohe, 2 bainugela eta egongela dituen pisua alokagai, 120.000 pezetan. Telf.: 943 21 65 63/610 94 35 86.

• Pisua errentan emateko, Zarautzen. Hirigunean eta berriztua. Tel.: 943 79 88 30.

• Donostiako Gros auzoan apartamentua alokagai, uztail eta abuztuan, hamabost egunez edo hilabetez. Hondartzatik oso gertu. Tel.: 943 79 82 47/943 71 96 29 (lan ordutan).

4. Errentan hartzeko

• Pisu bat alokatuko genuke Aramaion edo Aretxabaletan. Tel.: 629 92 48 82.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontakatuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otolara Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohaineoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

• Unibertsitateko hiru ikaslek pisua alokatuko lukete. Tel.: 943 18 74 75.

• Lau ikasle pisu bila. Tel.: 943 60 41 99.

• Irailetik aurrera etxe bat alokatuko nuke, 3 edo 4 gelarekin. Tel.: 943 83 34 47.

• Unibertsitateko ikasle talde batek lau laguntzako etxebizitza behar du Arrasaten edo Eskoriatzan. Tel.: 94365 45 22 (Aiala) edo 943 18 74 97 (Gorane).

5. Etxeak osatzeko

• Neskak behar dira Leioan pisua osatzeko. Unibertsitateko gertu. Tel.: 606 33 80 51.

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

• Kalealdea 4, behean, 100 m²ko lokala salgai. Tel.: 943 79 42 65.

14. Errentan emateko

• Akademia batek eskolak emateko bi gela alokatzen ditu. Tel.: 943 79 18 70.

• Elikagaietan aritzeko lokala alokagai. Tel.: 943 79 96 39 (asteguneetan).

LANA

17. Eskaintza

• Astelehenerdik ostiralera bitartean, garbiketa lanak egiteko prest nago. Tel.: 943 77 06 74.

• Neska arduradunak umeak zainduko litzuke, arratsaldean. Tel.: 943 71 53 74.

18. Eskaerak

• Esperientzia duen pertsona behar da ile apaindegian aritzeko, udan. Tel.: 943 79 22 59 (lan ordutan).

• Taberna lan egiteko pertsona bat behar da. Lana irailtik aurrera izango da. Tel.: 943 79 61 64.

• Esperientziadun jostuna behar da, jantzigintza eta konponketak egiteko. Tel.: 943 79 89 72.

• Ostalaritzan aritzeko tabernaria eta sukaldari laguntzaileak behar dira. Tel.: 943 79 20 50.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• Uztaillean ingelesezko eskolak emango nituzke. Tel.: 943 79 18 70.

• Esperientzia duen irakasleak Lehen Hezkuntzako eskolak ematen ditu, ingeleza barne. Tel.: 943 79 85 71 (21:30etik aurrera).

MOTORRA

23. Saldu

• Ford Escort XR3i, SS-AG, salgai, prezio onean. Tel.: 943 79 35 64/943 79 26 44.

• Volkswagen Golf 2-GTi salgai. Tel.: 943 79 48 49.

• Renault 19 turbo-diesel salgai. Tel.: 943 79 24 51 (21:00etatik aurrera, Maria Jesus).

DENETARIK

26. Saldu

• 150 litroko akuariuma saldu nahi dut, osagarri guztiekin. 943 79 86 38.

• Egongelarako armairua eta bi ohe mahaitxoekin salgai. Egoera onean. Tel.: 943 79 53 12.

• Hiru laguntzako hidromasajea salgai, prezio onean. Tel.: 606 75 50 22.

• Windsurfeko taula salgai, Rumba modeloa eta osagai guztiak. Tel.: 943 79 23 47.

• Txakurrendako atoa salgai. Tel.: 943 79 82 24 (gauetz).

29. Eman

• Haurrentzako sehaska bat eman nahi nuke bere osagarri guztiekin. Tel.: 943 79 86 38.

31. Galdu

• Ekainaren 2an, ostiralean, San Andresen urrezko medaloia galdu nuen. L hizkia eta data bat idatzita ditu. Balore sentimentala duenez, itzultzea eskertuko nuke. Tel.: 943 71 27 00/943 79 53 48.

• Perla zuridun eta txibista formadun lotura duen lepokoa galdu nuen ostiralean, Seber Altuben. Aurkitzen duenak saria jasoko du. Tel.: 943 79 78 54.

36. Deialdiak

• Kokatutako karabana antzeko bat errentan hartu nahiko nuke abuztuan, bi astez. Tel.: 943 77 01 31.

ATA

- TATUAJEAK • BODY-PEARCING •
- ARROPAK • OINETAKOAK •

San Joan jaietan ondo pasatu!

Marugalde, 14 • ARRASATE • Tel.: 943 79 49 72

MARGA jantziak



*San Joanak
elkarrekin
ospa ditzagun*



Iturriotz, 21
ARRASATE
Tel.: 943 71 17 40



PREGON

HE aquí el anuncio, la invitación anual, el Programa para que todos, vecinos y visitantes, cuantos más mejor, participen en las inminentes fiestas de S. Juan Bautista, de esta heráldica y sonora Villa de Mondragón!

Este «dragón inflamado, monte y castillo real» que ya es conocido en tantos lugares por arte de la calidad de los productos exportados, más que por el despliegue de la propaganda industrial, se torne en estos días Sanjuaneros, retozón y festero, danza y degusta las maravillas gastronómicas de la tierra y contagia a todos con los ritos ancestrales del solsticio de verano, cohetes y hogueras, ponderados con la cristiana significación del Precursor, alegría y purificación.

Garai batean eus-kara debekatua zegoela eta, gaztelera idatzi behar izaten zen herriko jaien egitaraua. Pedro Zumelagak ekarri digun pregoie-

an ikusten denez, gainera, oso gaztelera jantzia erabiltzen zuten horrelakoetan.

Argazkia eta berriemailea: Pedro Zumelaga

G A N B A R A

- Enmarkazioak
- Estiloko markoak
- Laminak
- Arte lanak (margo lanak)

Arte ederretako materialean %20ko deskontua

Jai zoriontsuak izan!



Erguin, 2 behea • Tel.: 943 77 12 37 • 20500 ARRASATE

ARRASATE



79 69 99

TOURLINE EXPRESS

Takoi

- Zapata konponketak
- Giltzen kopiak

Kalealdea, 2 behea (Larreako etxeak)
Tel.: 943 79 84 95

oakley ■ rayban ■ bolle ■ carrera ■ armani ■ hugo boss ■ ungaro ■ paco rabanne ■ arnette ■ rochas ■
dior ■ ferre ■ sting ■ vogue ■ jesus del pozo ■ moschino ■ lagerfeld ■ killer loop ■ persol

Erdiko Kale, 22 • Tel.: 943 79 71 68
Hiper Eroski • Tel.: 943 79 78 26

ARRASATE

Andra Mari, 8 • Tel.: 94 620 29 86
Grupo San Ignacio • Tel.: 94 681 84 92

DURANGO

Erdiko Kale, 21 • Tel.: 943 60 31 54

MUTRIKU


MICHAEL JORDAN
X-METAL JULIET



INSTITUTO
OPTICO

Arrasate kirolak Inurrategi anaiekin

Abenturarako prest



ARRASATE KIROLAK

Zure kirol denda

